

# URDAIBAI

2021  
zenb. 27  
.....

©MAGAZINE

# OMAKO BASOA

*arte iragankor edo hilezkorra?*

| FORU. HISTORIAZ BETETAKO PAISAIA

| ELKARRIZKETA. **BITTOR OROZ**. NEKAZARITZAKO,  
ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO  
SAILBURUORDEA

| LANDA ESKOLAK

| ARANA KONDEAREN ONDAREA

| BUSTURIALDEKO URA, BALIABIDEA, HABITATA  
ETA KUDEAKETA

| IZARO IRLA, GREZIAR INSPIRAZINOKO  
KONDAIRA

**1/6**

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 zenbakiak arrisku txikiagoa adierazten du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago. Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funts horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.



Doako istripu-aseguru berria.

# Babestu hobeto gehien maite duzuna.

Gaztedi Planarekin, 1.000 euroko gutxieneko saldoa badaukazu, doako aseguruia izango duzu<sup>(1)</sup>, egoerarik txarrenetan haiek babestuta edukitzeko.

Orain, gainera, **doako Aseguruaren prestazioa handitzeko aukera duzu<sup>(2)</sup>, bere lehenengo inbertsio-fondoa kontratatuta<sup>(3)</sup>**

Horrela, gurasoak istripuz hil ezker, adingabeek **Gaztedi Planarengatik hilean 200 euroko errenta izango dute 18 urte bete arte eta 300 euro gehiago Inbertsio fondoarengatik.**

## kutxabank

(1) Doako Aseguruak guraso baten heriotza estaliko du bera istripuz hiltzen bada. Aseguruia baliagarria izateko, Gaztedi Planak honako baldintza hauetako batzuk bete behar ditu: 1.000 euroko edo gehiagoko saldoa egotea istripua gertatu aurreko egunean edo 1.000 euroko edo gehiagoko batez besteko saldoa egotea istripua gertatu aurreko sei hilabeteetan. Prestazio honen bidez, hileroko 200 euroko errenta ordainduko zaio onuradunari, istripua gertatu den egunetik Planaren titularrak 18 urte bete arte. KUTXABANK SAK 055-1980019878 zenbakiko istripuetarako aseguru-poliza kontratatu du MAFRE VIDA, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana aseguru-etxearekin. (2) Gurasoen edo tutoreen istripuagatik heriotza estaltzen duen Doako Aseguruia, baldin eta istripuaren aurreko egunean Inbertsio Fondo/Fondoen Zorro Delegatu bakar batean 1.000 euroko edo gehiagoko saldoa badago. Prestazio honen bidez, hileroko 300 euroko errenta ordainduko zaio onuradunari, istripua gertatu den egunetik kontratuaren titularrak 18 urte bete arte. KUTXABANK SAK, ondore hauetarako, 055-1980019878 zenbakiko istripuetarako aseguru-poliza kontratatu du MAFRE VIDA, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana aseguru-etxearekin. Folleto osoa nahiz inbertsio-fondo bakoitzari buruzko inbertitzailearentzako oinarritzko datuak dakartzan dokumentua CNMVn daude. Gainera, CNMVen, Sozietate Kudeatzailean, bulegoetan eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean jaso daitezke.

## TURISMOA ETA URA

Urdaibai guztiz ederra da udazkenean, eta geure gastronomia be zoragarria da. Badirudi erakargarritasun hauek turistengan barneratzen hasi dirala, baina oraindik ezin dogu esan desestacionalizazio arrastorik dagoenik. Karga-ahalmena ezartzea eta errespetatzea Urdaibai jomuga turistiko lez daukon helburu bat da, bai eta aztarna ekologikoa minimizatzea be. Premisa hauek garrantzitsuak dira geure eskualdeko garapen-helburu guztietan.

Labur esanda, turismo-jomuga bateko karga-ahalmenaren kontzeptuak oro har zenbat bisita jasan daikkeen adierazten dau; hlanda be, parametro berezi garrantzitsuen batuketaren ondoriozko zeharkako parametroa da. Turismoak gora egiten dauen heinean, baliabideen gaineko presioa be handitzen ari da, eta geure mendietan, haranetan, herrietan, paduran, hareatzetan, aztarnategi arkeologikoetan edo Gaztelugatxe bezalako enklabeetan karga-ahalmena mugatua dala konturatzen gara, are gehiago geure garapen jasangarriaren helburuagaz koherenteak bagara.

Gainera, turistek eskualdean bizi garenok sortzen dogun aztarna ekologikoaz gain, beste aztarna bat sortzen dabe, biodibertsitateari, paisaiari, hirigintzari, atmosferari, hondakinen kudeaketari eta lurraldeari neurri guztietan eragiten deutsona.

Turismoak, jarduera ekonomiko lez, %1eko ur-kontsumoa dakar mundu mailan, eta ur-aztarna gehigarria be uzten deusku lurraldean. Mundu mailan, turista batek bere oporretako jomugako biztanle batek baino %7 ur gehiago kontsumitzen dauela kalkulaten da. Txosten teknikoan arabera, Urdaibaik defizit hidrikoa dauko agorraldietan, hain zuzen be turista gehien biltzen diranean. Egoera horrek ura biltzeko eta arazteko azpiegiturak eskatzen dauz, eta azpiegitura hoiak uraren zikloaren kudeaketa egokia danontzat, biztanleontzat eta bisitariatzat, xurgatu eta bermatzeko gai izan behar dira.



## ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L  
Carlos Gangoiti, 15, behea  
Gernika-Lumo (Bizkaia)  
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus  
www.nuevaeuropa.eus

## HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus  
tel.: 94 625 06 06

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

**PUBLIKAZIOA DATA:** 2021.11.19



## AURKIBIDEA



- 04** ERREPORTAJEA. Omako Basoa.  
**09** KOLABORAZIOA. Arantxa Madariaga Aberasturi.  
**10** DANONARTEAN.  
**16** ELKARRIZKETA. Bittor Oroz. *Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordea.*  
**20** VISIT URDAIBAI. Foru.  
**22** LEKUKO. Landa Eskolak.  
**24** KALERIK KALE. Arana Kondea.  
**26** SALTSA PORRU. Ikoak.  
**28** BERDEAN. Busturialdeko Ura.  
**32** BETI JAI. Iزارo Irla .

*"Baso Margotuak bizirik  
iraungo dau. Omako haranak  
erreferente kulturala izeten  
jarraituko dau."*

UNAI REMENTERIA

# OMAKO KO BASO SOA

*arte iragankor edo hilezkorra?*

Iragankorra izatea ez da Bizkaiko ikono artistiko, kultural eta paisajistiko honetarako iraugitzearen sinonimoa. Omako Basoa berme guztiekaz berbizten da, Agustín Ibarrola egilearen esentziagaz eta ingurune naturalarekiko errespetuagaz. Busturialdea-Urdai-baiko motor turistiko lez daukon proiektzioak eta bere balio artistiko handiak ia hilezkor bihurtu dabe.

**B**elaunaldi barriek eta munduak ezin eben galdu Omako Baso Margotua gogorarazten dauen antxinakoaren, naturaren eta artearen arteko lotura estuaren esperientzia. Agustín Ibarrola egileak duela 35 urte oparitu euskun arte esperimentaleko bixi plastiko hau, eta haren ondareak bizirik jarraituko dau, mihise iragankor delikatua izan arren.

Ahalegin ia titaniko batek Omako Baso Margotuak etorkizun bat izatea ahalbidetu dau. Pinudiaren bilakaera naturalagatik (onddo suntsitzaila batek be erasanda) jasaten ari zan narriadura larriaren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak, artistaren familiagaz batera, etengabe ekin deutso kokapen barria aurkitzeko ahaleginari. Azkenik, Omako Baso Margotuak gertu dagoen lursail batean gozau al izango dogu barrero obra hontaz.

#### **BASO MARGOTUA KORTEZUBIN GERATZEN DA**

Ibarrolako baso margotu barria Basobarri mendian kokatuko da, izen ia iragarlea. Hamahiru hektareako lursaila da, eta gaur egungo Omako Basotik oso gertu dago. *"Aurkitutako konponbidea biribila da. Omako Baso Margotuak bizitza berreskuratzen dau, bere etorkizuna. Bizkaiko Foru Aldundiak baso barri bat erosi dau Ibarrolaren obrarako, egungoari itsatsita dagoena. Basobarri basoa obra berarentzako mihise barria da, lekua aldatzen da bai baina ez obra. Hamahiru hektareako mihise perfektua Baso Margotuaren funtsa, arima mantentzeko, Agustinen mezua mantentzeko. Zugatzak aldatzen dira, bai, baina Ibarrolaren artea eta magia eta bere hizkuntzea ez dira aldatzen, ez ingurunearekiko konplizitatea, ez Ereñozarreko San Migelegaz eta Santimamiñegaz daukon lotura sakona, ez geure iraganagaz eta orainagaz. Baso Margotuak bizirik iraungo*

*dau. Omako haranak erreferente kulturala izeten jarraituko dau.", adierazi dau Ahal-dun Nagusiak, Unai Rementeriak.*

Kortezubin bi notzietan, baso zahararen itxierarenak eta kokapen barriarenak, zalantzak, harridura eta itxaropenak sortu dabez, ia modu bardinean. *"Basoaren itxierari buruzko notzia ustekabean iritsi jakun; ostalaritzako negozioek kezka agertu eben, ekonomikoki kaltetuenak ostalaritzako establezimenduak izan diralako. Eta kokapen barriaren notzia espero genduna zan, baso margotua Kortezubin sortu baita. Geure herrian jarraitu behar ebala pentsatzen gendun", adierazi dau Kortezubiko alkate Karmele Embeitak.*

Baso barria aukeratzeko orduan, faktore artistikoak nagusitu dira, eta hainbat alderdi praktiko hartu dira kontuan, hala nola sarbide-azpiegitura onak eta espazioaren kudeaketa, aurreikusten dan bisitari kopurua kontuan hartuta. Rementeriak azaldu dauenez, *"Oso argi genduan Bizkaiak baso hau behar ebala. Eta ez gara gelditu irtenbide perfektua aurkitu arte, ideala. 27 proposamen desbardin erabili eta aztertu doguz. Ahalik eta aditu gehienengana jo dogu. Artean, zugaitzetan, basoetan, kontserbazioan adituak...Eta Basobarriaren aldeko erabakia hartu dogu. Edo hobeto esanda, Basobarri izan da erabakia gugatik hartu dauena. Gaur egungo basoaren ondoan dagoelako. Baita bere intsinis pinuak egokiak diralako eta adin onenean dagozelako be, 30 eta 35 urte bitartean; eta lurraren morfologia ezin hobea dalako pinturak Agustinek pentsatu ebazan bezala ulertzeko".*

Bereziki garrantzitsua da fustea, pinu hoiu altuera eta garrantziagatik, ezaugarri ezin hobek izan behar baititu Ibarrolak sortutako perspektibagaz marrazkiak irudikatzen mihise perfektua izateko. >>>

Perspektibak, bidimentsionaltasunak eta tridimentsionaltasunak berebiziko garrantzia dauke Ibarrolaren obran; horregaitik, funtsezkoa da aukeratutako basoak bolumena emongo dauen baso-masa bat eta joko artistiko hori ahalbidetuko dauen zuhaitz-kopuru bat izatea. Orografiak espazio lauekaz eta malda handiko beste batzuekaz be elkarrengaitan dau, ikuspuntu eta ikuspegiak aldatzen lagunduz, irudiak geure begien aurrean zelan sortzen eta eraldatzen diran esperimintatzeko.

Bitxia da kokapen barriak "Basobarri" izena izatea, baita gune honetan bertan Agustin Ibarrolak Baso Margotuaren Interpretazio Zentroa kokatzea proposatu eban lekua izatea be. Basoa sortzeko prozesua azaltzeko artistak bere obraren zati bat emoteko asmoa eukan zentro honetarako. "Izan be, basoa ez da berez sortzen, aurretiazko elaborazio asko dago, lan asko, esperimintazio asko. Interpretazio Zentroan bere obra hau basoagaz paraleloan kokatzea planteatu genduan. Guri grazia egin deusku, eta asko gustatu jaku baso barria leku horretan bertan kokatzea, gauzak naturalenera bideratuko balira bezala da", azaldu dau Jose Ibarrola Agustinen semeak eta bera be artista polifazetikoak. Omako Baso Margotuaren Interpretazio Zentro bat sortzea Ibarrolatarrek erabat baztertu ez daben ideia da. "Basoa konpondu ondoren, une batean pentsatu beharko da. Nire aitaren obra osatzeko beharrezkoa litzateke", adierazi dau bere seme Josek.

## OMAKO BASOAREN SUSTRAIEN BILA

Agustin Ibarrolak Omako Basoa sortzeko egin eban prozesu sakona eta lan nekeza kontatzen deusku bere semeak, Jose Ibarrolak. Bere obragaz zerikusia daukon guztiaren bere aitaren "ahotsa" da. Sendoa da Omako baso margotuak igaro dabezen gorabeherei buruz berba egitean, berak hilezkor bihurtzerainoko indar, energia eta garrantzia nahikoagaz gaur egun iritsi dan obra honen "gakoak" kontatzen deuskuz. "1980ko hamarkadan erabakigarriak izan ziran Bizkaiko Foru Aldundiak pinudia erosi izana eta garai hartan konpainia bakarra zan «Ronda Iberia» airelinearen aldizkarirako erreportajeak egiten ebazan argazkilari batek hartutako

argazkia. Horrek basoaren ospea areagotu eban", gogoratzen dau Jose Ibarrolak.

Omako Baso Margotua bisitatu dogun guztiok galdera hau egin dogu noizbait: ze mezu helarazi gura izan eban Agustin Ibarrolak basoa margotu ebanean? "Nire aitak Santimamiñeri eta Gernikari egindako omenaldi lez pentsatu eban basoa, herrialdeko joeren gurutzaketa lez, modernitatetik historiaurrera. Lan honetan, Parisen sortutako arte abstraktuko "57 Talde"ko kide gisa izandako garapen profesionala nabaritzen da. Omako basoa bertan agertu zan esperimintazio espazialaren parte da, lengoia plastiko propio baten garapen gisa. Baina Omako Basoa margotzea ihesbide bat izan zan. Urte haietan, nire aita izugarriko ostrazismo profesionaleko egoeran egoan. Basoa terapia moduko bat izan zan. Baso margotua naturan egindako bere esku-hartzerik pozgarriena eta baikorrena da. Bere une pertsonala iluna izan arren, hortxe atera eban bere energia eta bizitzeko gogo guztia. Txundigarria da arte garaikidearen adierazpen plastikoaren eta naturaren arteko osotasun eta elkartzeko sentsazioa, sinbiosi interesgarria da" azaltzen dau Jose Ibarrolak.

Agustin Ibarrolak Oman egindako lana Land Art gisa hartu da oker, naturaren parte izate hutsagatik. Baina egileak ez eban

korrante artistiko horren barruan sailkatzen, eta horrela ulertu behar dogu. "Nire aitak ez eban inoiz onartu Land Art-eko esku-hartzea izatea, gainera oso gogaikarria jakon. Bere ustez, lengoia plastiko baten esperimintazioa zan, espazio plastikoaren elkarrengaitan oso oinarritua, gauzek forma eta mamia daukeela eta zelan erlaziona daitekezan erakusten ebana, "57 Taldeko" teoria zana. Errenazimentuko ikuspegiaren ideia hautsi gura izan ebala esaten eban. Adibidez, lerroa, basoan dagoen elementuetako bat, pinuen argazki batean pintzel batez marraztu balu bezala ikusten da. Hau da, espazioan hiru dimentsioko zerbait, pinuak, bi dimentsiotakoa bihurtzen da bere esku-hartzeagatik. Lengoia plastiko hau gailenduko da jatorrizko obra birjaiotzean. Hizkuntza hau errepikatuko da. Paper batetik idazkera atera eta beste batean berridaztea bezala da. Hizkuntza bera da, basoa zan berarentzat bere mihise handia", Jose Ibarrolak kontatzen dauenez.

## BASOA ETA ARTEA, IRAGANKORRA ETA JASANGARRIA

Baina obra bizi iragankorra daukon espazio natural batean sortu bazan, denboran iraunaraz al daikegu jatorrizko esanahia aldatu barik? Bizkaiko Foru Aldundiak eta artistaren familiak argi ikusten dabe: "Egingo danak ez dau betiko iraungo, naturak berme



Agustin Ibarrola sormen asrtistikoaren prozesuan. Argazkia: [www.agustinibarrola.com](http://www.agustinibarrola.com)



*"Lengoaia plastiko hau gailenduko da jatorrizko obra birjaiotzean."*

JOSE IBARROLA

*erlatiboa baitu. 20 urte iraun daike eta 20 urteen buru eragiketa erreplikatu daikegu. Izan be, nahiz eta zenbaitek zalantzan jartzen dabon jatorrizkoaren erreplika bat egitearen balioa, kontua da, arte garai-kean, kontzeptua dala garrantzitsuena, erabiltzen dan hizkuntza. Agustinen hizkuntza plastikoa, bere ideia, bere kontzeptua, aurrekoaren antzeko leku batera eramatea da asmoa. Eta zortea aurrekoarengandik hain hurbil, paraleloan, espazio egokia aurkitzea izan da", dino Jose Ibarrolak. Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiak be proiektua defendatu dau: "Arte bizia, definizioz, arte iragankorra da. Agustín Ibarrolak bazekien hori eta honela onartu eban proiektua hasi ebanean. Bizkaiko Aldundi gisa, gure eginbeharra 1990etik basoa eta Ibarrolaren obra zaintzea eta ahalik eta baldintzarik onenetan mantentzea izan da. Hizpide dogun basoa honelako basoak bizi ohi direna baino 20 urte gehiago bizitzea lortu izana Aldundiaren lan onaren froga da. Guretzat Oma Bizkaiko sinbolo bat da. Ezin dogu imajinatu Oma bako Bizkaia. Badakigu ezin dogula saihestu pinuak hiltzea, baina hilabeteak daramatzagu obra bizirik mantentzeko hautabide bat bilatzen. Omako espirituak bizirik jarrai dezan".*

Omako baso barria ez da soilik obra artistiko lez birsortuko, bere kudeaketa onerako eta bere ingurune naturalerako abantailak be ekarriko dauz. Omako harana utzi barik, tokiz aldatzeak ebakua-zio-bide irisgarriago bat izatea ahalbidetuko dau larrialdi-kasuetan, baita espazioa mantentzeko lanetarako irisgarriagoa be. Baso barrirako sarbidea Lezikako aparkalekutik izango da, Santimamiñe haitzuloaren ondoan, baina lursail zabalago batean eta baso-pista ibilgarriagoetatik hurbil. >>>

Espazioaren karga-ahalmena be kontutan hartu behar da, Urdaibaiko Biosfera Erreserban baitago, babes bereziko espazioa, landa-ingurune populatua dalako eta altxor kultural baten aurrean gagozelako, urtebetean 100.000 bisitari be har daikeezana. Faktore hauek garapen iraunkorraren, ekogarapenaren alde lan egiteko erantzukizunera garamatzate. Kortezubin, bertako alkate Karmele Embeitak argi dauko: *"hau da kezkatzen gaituena, jasangarria izan behar dau bai bisitariarentzat bai bizilagunentzat; Basoa turistarentzat irekita egoanean, urteko hainbat alditan aparkaleku, jende kopuru eta garbiketa arazo ugari sortzen ziran. Kortezubirentzat, oro har, Santimamiñegaz batera, basoa nortasun-ezaugarria da; baina, bestalde, Oma eta Basondon bizi diran pertsoneri eragin daikeezan eragozpenengatik be kezka dago, bisitaldien gaia ondo antolatzen ez bada. Masifikazioa, aparkatzeko arazoak, garbiketa, ingurua zaintzea...geure ustez, hau guztia modu kontrolatuan egin beharko litzateke, eta jende-pilaketak saihestu"*.

Baso Margotu barriaren etorkizuneko kudeaketari esker, gainera, basoa bera birsortzeko eremuak isolatu ahal izango dira, eta horrela, mihisearen eta obraren etorkizuna bermatuko da. *"Geure konpromisoa ingurumenarena be bada, basoak basoa izaten jarraitu behar dau. Horregaitik, Omako basoa espezie autoktonoekaz birpopulatuko dogu. Eta batek daki hainbat markada batzuk barru Omak Ibarrolaren obra, sorgindutako basoa, barriz har daikeen"*, desiratu dau Rementeriak.

Omako Baso Margotuak Basobarrin dauko bere etorkizuna. Proiektu desiratu da, Guggenheim Gernikaren asmo handiko beste proiektuagaz batera bizi dana, eta ze sinergia sor daikeezan galdetzerara garamatza. *"Geure ustez, eskualde mailan kultur eskaintza handitu egingo da Guggenheimen etorkizuneko proiektuagaz, baina Santimamiñeren balioa ahaztu barik, Unescok Gizateriaren Ondarearen zerrendan baitago. Geure ustez, proiektu barriak artea, kultura eta natura alkatu gura dauz, eta hau Kortezubin Santimamiñegaz eta Agustin Ibarrolaren Baso Margotuagaz bermatuta dago, eta*

*Guggenheim Urdaibairen proiektuagaz osatuko dala uste dogu"*, hausnartzen dau Kortezubiko alkate Karmele Embeitak.

Kortezubiko Omako Basoa erreplikatzeko foru proiektuaren helburu nagusia eskualdean finkatu dan eta gaur egun Bizkaia osorako baliabide garrantzitsua dan kultur proposamen bati jarraipena emotea da. Baso barriak Ibarrolaren esentzia osoa gordeko dau eta, orain gertatzen dan bezala, bisitarietikiko konektibitate emozionala mantenduko dau.

Omako Basobarrin Ibarrolaren obraren lehen pintzeladak 2022ko maiatzean hasiko dira emoten eta, horretarako, Ibarrola eta Omaren obrako aditu handienetako bat izago dogu, Fernando Bazeta EHUKo irakaslea. Lantaldeko kide dira, halaber, Javier Riaño margolari eta eskultorea, Miguel Zugaza Bilboko Arte Eder Museoko zuzendaria eta Lucia Agirre Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna. Adituen batzordean lan egiten dabe, bestalde, Bizkaiko Foru Aldundia- ren Kultura Zuzendaritzako taldeek eta Basalaneko teknikariek. *"Ni gainean izango naz aitaren etxea defendatzeko. Ni jagole nagoen bitartean, leialtasun eta zintotasun handienaz egitea saiatuko naz. Izan be, nire aita ez egon arren, obra hau, egiten dan lekuan egiten dala, bere obra izaten jarraituko dau"*, dino Jose Ibarrola semeak.

Aurreikusitako inbertsioa milioi bat eurokoa da, eta kalkulatzen da 2022ko udan baso margotu barria "obretan eta zabalik" egongo dala, eta Omako Baso Margotuko pintura-multzo ezagunenak bisitatu ahal izango dira, obra osoa egiten jarraitzen dan bitartean Horrela, obra sortzeko prozesuan "parte hartu" ahal izango da. Hasierako helburua da 2023ko udan Ibarrolako Baso Margotua, Omako Baso Margotua, bere distira osoan berpiztea.

UM

*"Basoa, jasangarria izan behar dau bai bisitariarentzat bai bizilagunentzat."*

KARMELE ENBEITA



Omako basoko pinturak.



# Elikagaien segurtasuna

## ZIURTATUTA DAUKAGU?

**MIREN ARANTXA MADARIAGA**

*Elika Fundazioko zuzendaria*

Lehenengo eta behin, ona leiteke elikagaien segurtasuna definitzea, kontzeptua desbardina baita gagozen lekuaren arabera. Planetako leku batzuetan elikagaien segurtasuna ez dago bermatuta, pertsona guztiek ez daukeelako elikagaia eskuratzeko aukerarik. Halan be, elikagaien segurtasunaz ari garenean, kontsumitzen doguzan elikagai guztiak gure osasunerako seguruak izatea espero dogu. Baina batzuetan erantzukizun hori beste batzuen, operadoreen, banatzaileen eta erakundeen esku uzten dogu, baina, egia esan, erantzunkideak be bagara. Horregatik, elikagaien segurtasunaren kulturaz berba egin behar dogu, kontzeptu hau barneratu behar dogu, elikagaiekiko ohiturak eta portaera aldatuz. Halan be, ez dogu konformatu behar elikagaiak geure osasunarentzat kaltegarriak ez izateagaz, gure elikadura, segurua izateaz gain, jasangarria eta osasungarria izatea eskatu behar dogu. Horregatik, kontsumitzen doguzen elikagaien bizi-zikloa ezagutu behar dogu, lehengaiak non sortzen diran, hoiak ekoizteko ze baliabide natural kontsumitzen diran, nork ekoizten dauzen, gehitzen jakezen substantzien kopurua, azukreak, geure gustukoak izateko gehigarriak, etab. Informazio horrek guztiak gure kontsumo-ohiturak baldintzatu beharko leukez, prezioaz edo publizitateaz haratago begiratu beharko luke, elikagaien benetako baliora joan beharko leuke. Horregatik, Urdaibai bezalako ingurune natural batean bizitzeko zortea eta pribilegioa dogunok ikasi beharko geunke nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak ingurune honi eusteko daukon garrantzia baloratzen, eta jarraitutasuna bermatzen hurbileko eta sasoiko produktuak, elikagai eskuragarriak eta jatorria ezagutzen doguzenak kontsumituz. ■





## ARRATZUKO

UDALA

### ARRATZU, EGUZKI-ENERGIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DAUEN UDALERRI JASANGARRIA

Hemendik aurrera, Udalak diru-sarrerak gehituko dauz udalaren teiltuan instalatutako eguzki-planta fotovoltaikoak sortzen dauen energia sare elektrikoari saltzeagatik. Instalazioa optimizatzeko, duela 15 urte instalatutako panelen orde ez eraginkoragoak diran beste batzuk jarri dauz. 2004an EEGaz (Energiaren Euskal Erakundea) sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez udalak udalaren teiltuaren azalera lagatzen baitzuen eguzki-energia sortzeko planta gisa ustiatzeko, amaitu egin da, eta, akordioaren ondorioz, udalerrirako azalera berreskuratu dau, eta orain barritura dagozen panelen titulartasuna jaso dau. Eguzki-energia sortzeko proiektuari jarraipena emoten deutson gestino honegaz, Arratzuko Udalak barrikuntzagaz, ingurumenagaz eta jasangarritasunagaz daukon konpromisoaren ibilbidea berresten dau.

Panel barriek, guztira 340W-ko Panel Trina Solar TSM-340 modeloko 16 unitatek, 12 urteko produktuaren bermea eta 25 urteko ekoizpen-bermea dauke. Eguzki-energia energi-iturri garbia eta barriztagarria da. Eguzkia amaibako baliabidea dalako. Ekimen honen bidez, Arratzuko Udalak energia salduko dau, inbertsioa errentagarri egingo dau eta diru-sarrerak sortuko dauz udalerrirako.



## BUSTURIKO

UDALA

### GAUR EGUN KULTURA-ONDAREAREN PARTE DIREN OHIKO LANAK

Eguneroko bizitzak ohiturak sortzen dauz, tradizioaren parte dan ondare kulturala uzten dau eta zentzua emoten deutso herri baten ondare historikoari. Iturriak, uraskak eta latsarriak Busturiako bizilagunen memorian gordetako landa-ondarearen parte dira. Ondare horren kontserbazioak herriaren historia eta nortasuna balioesten dauz, eta aurtun, Ondarearen Europako Jardunaldien esparruan ondare hau ikertu dau udalak, *Ondare irisgarri* eta *inklusiboan* oinarrituta. Hori dala eta, udalak bere paisaian barreriatuta dagozen eta duela urte gutxi arte udalerriko eguneroko bizitzan funtsezkoak izan ziran landa-azpiegitura txiki tradizional hoiek ezagutu eta ezagutarazi dauz. Etxeetan ur-korronterik ez egoenean, iturrietara jo behar izaten zan egunero etxeko erabilerara desberdinetarako ura hartzera, urasketara ganaduari edateko emotera eta latsarrietara arropa garbitzera. Ikus-entzunezko proiektio baten eta bisita gidatu baten bidez, bisitariak atzerako begirada horregaz gozatu ebean eta gaur egun erabiltzen ez diran elementu hoien garrantzia ulertu ebean. Ekimen horrek balio erantsia izan dau elementu hoiek egunerokoan erabili ebean Busturiako bizilagunen testigantzak entzutean. Bisitari gazteenentzako ezinbesteko irakaskuntza eta etxean ur korrantea izateak zer dakarren baloratzeko deia, erosotasun pertsonalari eta uraren kudeaketari dagokienez. Bideoa honako helbide honetan ikus daiteke: [www.busturia.org](http://www.busturia.org).



## FORUKO

UDALA

### KONTSULTA MEDIKOA TORREBARRIN: ESPAZIOA, OSASUN BERMEAK ETA IRISGARRITASUNA

Foruk Torrebarin kokatuko dau bere kontsulta medikoa. Udalak aurtengo uztailean (2021) erosi eban eraikina, eta egokitu egingo dau bizilagunei arreta sanitarioko zerbitzua eskaintzeko, gaurko beharrianen neurrira. Pandemiak eta urteen joan-etorriak agerian utzi dabe forutarren egungo kontsultategia, udal-letzeko eraikineko bulegoetan dagoena, txiki geratu dala, eta ez dauzela betetzen egungo aireztapen, distantzia pertsonal, irisgarritasun, osasun-materialaren biltegiratze eta paziente-entzako intimitate beharrak. Kokapen barri bat bilatzeko aztertu diran aukeren artean, Torrebarri izan da aukerarik onena, espazio handiagoa dalako, pertsonen arteko distantzia, aireztapen ona, biltegiratzea eta errealitate barriagaz bat datorren Osakidetza proposatutako plan funtzionalak eskatutako beste alderdi batzuk bermatzeko aukera emoten dauelako. Era berean, Forun jende gehien bizi dan gunean dago, autobus-geltokiaren ondoan, eta herriaren sarreran, beraz, irisgarria da. Muruetagaz egindako mediku-hitzarmenaren ondorioz, Foruko kontsultak bi herriak artatzen dauz. Beteko dabezen zerbitzuak familiako medikua, praktikantea eta erizaina izango dira. Kontsultategi barriaren proiektua urte amaierarako aurreikusita dago. Obrak datorren urterako egitea planteatzen da, Foruko osasuna eta bizitza soziala ardatz daukozen 2022ko aurrekontuen kargura.



## GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

### HAMABI EMOZIO EGUTEGIAN

Udal-kudeaketaren etorkizuneko proiektioaren zutabeetako bat herriko memoria historikoan eta herriko kulturaren sakontzea da eta Kmo ezagutza sustatzea be. Udal-egutegia urteko argazki-erakusketa batean sozializatzen diran balio hoiaren bilduma bat da, etxeen intimitatean hilabetez hilabete gozaten direnak eta herritarra izatearen sentimendua aberasten dabena. Duela 7 urtetik hona, Gautegiz Arteagako Udalak argazki lehiaketa bat antolatzen dau herritarren artean banatzen eta partekatzen dan udal egutegia osatzeko. Ekimenak argazkigintzarekiko interesa bultzatu dau, eta, horren ondorioz, ordura arte ezezagunak ziran txokoak agerian jarri dauz, antxinako argazki baliotsuak berreskuratu dauz eta aire zabaleko jarduera osasungarria sustatu dau, bakarka, familian eta lagunekaz egitekoa. Lehiaketa honen ospea urtetik urtera handitzen ari da, eta lehiakortasun osasuntsua sortu dau, argazki berezien udal bilduma batean islatzen dana. Aurton, sormenak "Lau urtarok Artian" islatu behar dauz. Epaimahai batek aukeratuko dauz 2022ko udal egutegia ilustratuko dabena 12 argazkiak, udalak doan banatuko dau egutegia. Lehiaketan parte hartzea irekia da, eta ezinbesteko baldintzak dira, besteak beste, irudiak Gautegiz Arteagan ateratzea eta inongo hedabidetan ez argitaratzea. Aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da. Egutegia abenduaren 17an aurkeztuko da.



## GERNIKA-LUMOKO

UDALA

### ASTRAKO BABESLEKUARI LEHORPEA EMANGO ZAIO ESTALKI BATEN BIDEZ

Gainera, espazio bat sortuko da memoria historikoarekin lotu-tako erakusketak edo ekitaldi kulturalak garatzeko.

Gernika-Lumoko Udalak paisaia-proiektu bat diseinatu du. Astrako antzinako arma-fabrikaren babesleku antiaereroa lehorpe-razteko, gaur egun barrualdean hezetasunak eta ur-filtrazioak baititu. Gerra Zibilaren historian eta foru-hiribilduaren bonbardaketan elementu garrantzitsua izan da bunkerra. Babesleku hori estalita egon zen sasoi batean, eta orain berriro estaliko da, baldintzarik onenetan mantentzeko.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin lankidetzan, 318.000 euro inbertituko dira, eta egur laminatuz egindako estalkiak bunkerra babestuko du eta tarteko zutaberik gabeko espazio ireki bat sortuko du. Estalkia teilatu gisa irekiko da, ondoan beste 200 metro karratuko azalera estaltzeko. Horrela, espazio bat sortuko da, herriko oroimen historikoarekin lotutako erakusketak edo ekitaldi kulturalak egiteko. Era berean, paisaia-plan bat diseinatu da, azpiegiturari eta haren ingurune hurbilenari eragingo diena.

Astrako aterpea, jatorrian, sabai aizun baten azpian zegoen izkutatuta, eta goitik ikusita etxebizitza baten itxura zuen.



## IBARRANGELUKO

UDALA

### GIZARTE INKLUSIOA, KONPROMISO SENDOA IBARRANGELUN

Ibarrangeluko Udalak Lantegi Batuak enpresagaz adostu dau gaitasun anitzak dituen pertsona bat kontratatzea Arketako (Laida) udal-kanpinoko mantentze- eta lorezaintza-lanetarako, gizarte inklusioan aurrera egiteko asmoz. Ildo horretan, Lantegi Batuak-ek "Lagundutako enplegu" izeneko programa aurkeztu eutsen udalari. Programa horrek hainbat gaitasun dituzten pertsonak enpresa arruntetan laneratzea sustatzen dau, eta bere sektorean inklusibotasun-eredu bat da. Programa hau lagundutako prestakuntza-, okupazio- eta enplegurako ibilbide batez osatuta dago. Esperientzia hau baliagarria izango da Ibarrangeluko Udalak gaitasun anitzak dituzten pertsonak laneratzeko lehen urratsak emoteko eta oso pozik agertu da hasitako lankidetzaren honeguz. Ibarrangeluko Udalak bereziki sustatzen dauz gizarte proiektuak eta enplegua urtero, eta proiektu honek udalaren enplegu programetan falta zan zutabea eskaintzen dau. Udala eta Lantegi Batuak pozik agertu dira Ibarrangelun inklusibotasuna sustatzeko egindako aurrerapenagaz, eta balioa emon deutse sektore horretako erakundeek Bizkaia kohesionatuagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko egindako lanari. Udalak erakundeek izan behar daben erantzukizun soziala azpimarratu dau eta era honetako proiektuek gizarte balioa eta balio emozionala emoten dabeela, aniztasunari eta inklusibotasunari dagokienez. Horrela, herriko pertsonen eta bisitariek naturaltasunez ikusiko dabe herriko lorezaina ehuneko ehun gai dan pertsona bat dala.



## KORTEZUBIKO

UDALA

### GEURE MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA

"Kortezubi 1936-1946" da herriaren memoria historikoa ikertu eta berreskuratzeko proiektuaren izena, gerra zibilean eta frankismoaren lehen garaian udalerrian gertatutakoa ezagutzeko. Kortezubiko Udalaren ekimena da, garai hartako bizipen, oroitzapen, dokumentu eta testigantzen bidez egia berreskuratzeko. Aranzadi Zientzia Elkarteak egingo dauen ikerketa historiko zorrotza izango da proiektuaren garapena. Kortezubik errepresioa jasan eben eta euren idealengatik guztia galdu ebenei baita bizitza galdu eben pertsoneri errekonozimendu publikoa egin gura dau. Udalak ez deutso uko egin gura izan memoria berreskuratzeari, egia ezagutzeari, biktimak aintzatsiari eta haien duintasuna berreskuratzeari, eskubidea da eta baita Kortezubiko egungo eta etorkizuneko belaunaldiekiko betebeharra be bada. Ekimen honen bidez, Kortezubiko pertsona askok jasan ebezan gertakari traumatikoak salatzeke eskubidea aldarrikatzen dau udalak, eta herriaren oroimen kolektiboan egia historikoa txertatzeko konpromisoa adierazten dau. Herriari lan delikatu eta hunkigarri honetan emondako laguntza eskertuz. Lan horren emaitzak garrantzi handia izango dau 1936ko gerra zibilaren krudelkeria pairatu eben herriko hainbat familiarentzat. Proiektuaren aurrerapen bat duela gutxi aurkeztu zan, Patxi Juaristi UPV/EHUko irakasle eta Aranzadiko ikertzaileak parte hartu eban ekitaldi publikoan.



## MENDATAKO

UDALA

### UDAL ERAIKINEN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETZEKO EKINTZAK

Udal-kudeaketan jasangarritasuna eta energia aurreztea Mendatako Udalaren garapen-estrategiaren ildoetako bat dira. Testuinguru honetan kokatzen da udal-erakin guztiak energetikoki jasangarriak izateko plan orokor bat. Lehenengo urratsa energia-ziurtagiria lortzea da; horretarako, instalazio termikodun udal-erakinetan ikuskapen tekniko bat egingo da, hala nola udaletxean, Elizoste eraikinean, Artape Tabernan, Zarrabenta Tabernan, Zarrabentako Txokoan eta Albizeko Txokoan. Dagozkion txostenak egin ondoren, udalak beharrezko egoitzapen-ekintzak abiaraziko dauz Eusko Jaurlaritzak ezartzen dauen energia-araudia betetzeko. Herriko Taberna hartzen dauen Artaperen kasuan, 70kw-tik gorako potentzia kontratatuta daukonez, energia-auditoria bat egingo da, haren eraginkortasun-maila hobetzeko eta energia barritagarrien ezarpena baloratzeko, bertako ostalaritza-jarduera garatzeko. Honegaz Mendatak, landa-espirtua eta izaera jasangarria daukon herriak, energia-kontsumoa murrizteko formulak bilatzen dauz, energia-sistema eraginkorragoa, lehiakorra eta seguruagoa izateko eta, horrela, ingurumen-inpaktua murrizteko. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat dauko eta plan integral baten barruan kokatzen da, etorkizun hurbilean Mendatan erakin publiko guztiak energia barritagarriekaz, eguzki-energia-gaz, geotermiagaz, biomasagaz edo minieolikoekaz bakarrik hornitzea lortzeko.



## MUNDAKAKO

UDALA

### "URDAIBAICO ESENTZIA" FORMATUKO MERKATUA, GABONAK GOGOAN

Mundakak bere abenduko zubiko azoka ospatuko dau barriro, aurton formatu barri batez erakargarritasuna gehitzeko eta bertoko lehen sektoreari laguntzeko. Datorren abenduaren 4an, zapatuan, Agirre Lehendakariaren plazan, txakolinaren eguna ordezkatzeko dauen azoka bat egongo da udaletxeko arkupeetan. Eskualdeko dozena erdi ekoizle baino gehiago izango dira bertan, eta aparteko produktuak aurkeztuko dabez. Ogia, gaztak, gozoak, txakolina, sasoiko ortuariak, pateak, kontserbak, ... gehienak kmo produktuak, guztiak kalidadezkoak eta geure kultura eta tradizio gastronomikokoak. Ekimen hau Mundakako garapen ekonomikoa bultzatzeko udalaren estrategiaren parte da, eskualdeko lehen sektorea babestuz, herriko aisialdi arduratsua dinamizatzeko eta turismo iraunkor desestazionalizatua erakartzeko bitartekoa be bada, herriko nortasun enogastronomikoa ezagutzeko gozatzeko. Hau guztia, osasun- eta epidemiologia-egoera ahaztu barik. Ekitaldiaren antolaketa behar diran neurri guztiak aplikatuko dira bertaratutako pertsonen eta parte hartuko daberen ekoizleen segurtasuna bermatzeko. "Urdaibaiko Esentziak" goizez egingo da, 11:00etatik 15:00etara, otzara baxerriari eta itsasoari lotutako Urdaibaiko produkturik onenekaz betetzeko aukera ezinhobea, Gabonei begira erosketak egiteko eta baita neguan Mundakako edertasuna ezagutzeko be.



## MURUETA

UDALA

### HERRITARREN IRITZIA FUNTSEZKOIAZ IZANGO DA HERRIKO ETORKIZUNEKO HIRI-ANTOLAMENDUAN

Murueta Udala lehen pausak eman dauz Hiri Antolamenduko Plan Orokor barria (HAPO) sortzeko. Dokumentu estrategiko honek, udal-kudeaketagaz batera, herritarren inplikazioa eskatzen dau, "etorkizuneko Murueta" eraikitzeko erronkaren aurrean gagozelako. Une garrantzitsua da, eta partaidetza-lana be bai, udalaren eta herritarren arteko talde-lana, beharizanak eta asmoak baldintza onenetan azaltzeko aukera izango dabe eta, herriaren bihotza Muruetan bizi diran pertsonak baitira. Hirigintza-antolamenduko proiektua garatzeko, herritarrek parte hartzeko programa sakona sortu da, eta herritar guztiek parte hartzeko aukera izango dabe programa horretan. Informazioa, kontsultak eta eztabaidak, auzoen eta herriko elkarte eta jardueren berriazko foroek gain, aurreikusitako prozesuaren parte dira. Plana egiteko kontuan hartuko diren jarraibideen artean, lehenetsuna emongo jake egungo kezka garrantzitsuei, hala nola ingurumen-iraunkortasunari, genero-eraketa eta berdintasun-eraketa sentikorra dan plangintzari, irisgarritasun unibertsalari eta bideen eta errepideen komunikazio egokiari. Irizpide hoiaren arabera, 1998tik indarrean dagoen egungo udal-hirigintzako arauak ordezkatzeko dira. HAPO idazteko ardurak daukon enpresak kontuan hartu beharko dauz, besteak beste, hiri-hazkuntzaren joerak eta lurzoruen erabilera, eta, batez be, etxebizitza. Muruetaren bertsiorik onena garatzeko oinarriak finkatzeko proiektu garrantzitsua.



**Biotalde**

ELIKADURA-SEGURTASUNA  
INGURUMEN-OSASUNA  
MIKROBIOLOGIA BIOSANITARIOA

Gure zerbitzuak:  
LABORATEGIA  
FORMAKUNTZA ETA  
AHOLKULARITZA

Covid-19aren aurkako  
prebentzio planak



Pol.San Isidro II  
Idorsolo, 15- Dpto.3.2  
48.160 Derio (Bizkaia)  
944 566 589  
info@biotalde.com  
www.biotalde.com

Ezagutza, Teknologia, Zerbitzua



Sociedad Coop. Agrícola Ganadera  
Abeltzain eta Nekazar Kooperatiba Elkarteak

Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube  
48300 Gernika-Lumo  
Tel.94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71  
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com

www.kooperatibasanisidrogernika.com



ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOAK

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealday.es • 94 627 00 36

GOURMET  
URDAITEGIA



Pepi Urdaitegiak kalitatezko  
hestebeteak eta delicatessen  
produktu ugarieskaintzen dauz.

Gernikako plaza,7  
48300 Gernika-Lumo  
608 00 14 28



Urdaibai  
DRAIN 2.300 URTE  
HACE 2.300 AÑOS

arrolagune

Zabalik/Abierto  
DOMEKA GUZTIETAN  
TODOS LOS DOMINGOS  
ORDUTEGIA/ HORARIO  
10:00 - 14:00

Loiola Auzoa 4,  
48383 Arratzu (Bizkaia)  
Tel.: 634 243 762  
arrolagune@visiturdaibai.com  
www.visiturdaibai.com

Visit  
Urdaibai

Bizkaia

ARRIBALITZA  
KAFETEGIA

ARRIZA  
KAFETEGIA



EUSKAL SOUVENIRS



Andra Mari kalea, z/g  
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)  
94 625 19 30  
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs



ARRIBALITZA  
KAFETEGIA

Barrenkalea, 6  
946 466 084



Artetikalea  
944 650 698

48300 Gernika-Lumo

jasangarritasunagaz bati!

Busturialdeko  
mankomunitatea

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org  
94 625 68 84 / 94 625 47 22



# BITTOR OROZ

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAIEN  
POLITIKAKO SAILBURUORDEA

*“Merkaturatzean eta produktu desbardinaren arteko eta elikatze-katearen maila desbardinaren arteko lankidetzaren prozesuetan barritzeko premia handia dago.”*



COVID-19aren agerpenak guztiok baldintzatu gaitu, baita lehen sektorea eta baserriarrentzako, arrantzaleentzako, abeltzaintzako eta Eusko Jaurlaritzarentzako erronka sektorial barriei aurre egiteko modua be. Nekazaritza Sailaren buruan, Bittor Oroz sailburuordeak errealitate barri hau aztertu dau Urdaibai Magazinerako.

**Garai hauetan “erresilientzia” funtsezkoa da aurrera egiteko. Hau izan al da Euskadiko lehen sektorearen kasua?**

Osasun-krisiak agerian utzi dau gure lehen sektorearen eta elikaduraren balio-kate osoaren garrantzia. Gogoan izan behar dogu osasun-krisia sortu zanean eta funtsezkoa ez zan jardura oro berehala itxi zanean, hasierako beldurrak herritarren hornidurarik eza ekarri ebala, beldur hoiek ia berehala desagertu ziran arren.

Oro har, geure lehen sektoreak eta elikadura-kate osoak jakin dabe errealitate barrira egokitzen, eta indartuta atera da sektore estrategiko lez daukon proiektioari dagokionez.

Geure ustiategiaren egoera orokorrari dagokionez, berreskuratu egin dala uste dogu. Halanda be, ezin dogu ahaztu geure abeltzaintza-sektorea egoera larrian dagoela, aziendarentzako pentsuen eta beste sargai batzuen (erregaiak, elektrizitatea, etab.) prezioen igoera handiak eraginda, eta zuzenean eragiten ari direla geure abeltzaintza-ustiategiaren errentagarritasunean.

Horregaitik, duela gutxi 12 milioi euroko laguntza jarri dogu abian, Euskadiko esnetarako behien, haragitarako behien, ardien,





ahuntzen, haragitarako eta errutetarako hegaztien, txarrien, untzien eta zaldien sektoreetan abeltzaintza-jarduerari eusten laguntzeko, eta, horrela, sektore estrategiko honen egoera arintzeko, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

### **Zelan eragin deusku osasun-krisiak Busturialdean?**

Euskal ustiategiek, oro har, eta Busturialdekoek bereziki, ekoizpen-eredu estentsiboa dauke, lurraldeari lotua, eta kalidatezko eta urtarokotasun nabarmeneko ekoizpenekaz. Gainera, askotan, kontsumoa oso lotuta dago ospakizunekaz eta ekitaldiekaz, eta oso lotuta dago ostalaritzagaz.

COVID-19aren krisiak eragin desbardina izan dau, eta nabarmenagoa izan da ostalaritzagaz, turismoagaz, edota aisialdiagaz daukon loturaren arabera. Hala, inpaktu handiena mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean, apaingarrietan, edota abeltzaintza-ekoizpen jakin batzuetan (arkumeak, etab.) izan dau.

Gogora ekarri gura neukez euskal Administrazioek ondorioak arintzeko hartu dabezen talka-neurriak; besteak beste, produktu galkorren ekoizpen-soberakinak biltzea eta merkaturatzea, erakunde jakin batzuek azken erosteko akordioak egitea, banaketa handiagaz akordioak ezartzea osasun-krisiaren ondorioz itxita egon diran beste kanal batzuen bidez merkaturatutako produktuei irteera emateko, digitalizazioa bultzatuz, finantza-neurriak hartuz, nekazaritzako eta arrantzako produktuak garatzeko behar dan eskulana erraztuz, tokiko produktuaren kontsumoa eta bestelako ekimenak sustatuz.

Gaur egun, guztion ahaleginei esker, eta, bereziki, geure baserriarren ahaleginei esker, sektorearen egoera indartuta aterata da, prozesuak bizkortu egin baitira, hala nola egituraketa, digitalizazioa, besteak beste.

### **Ze ondorio izaten ari da pandemia dala eta Gernikako Azken Astelehena edota Bermeoko Arrain Azoka bezalako azokarik ez egitea? Ze mezu helarazten deuszu hauen falta bete-betea jasan dauen sektoreari? Eta herritarrei?**

Bi azokak geure lehen sektorearen eta geure arrantza- eta kontserba-tradizioaren aberastasunaren erakusle garrantzitsuak dira, eta azoka hauek bi urtez jarraian

ez egiteak galera handia ekarri dau. Halan da be, pandemian zehar astelehenetako merkatuari eustea lortu da, hori baita benetan garrantzitsua eskualdeko ekoizleentzat, bezeroekaz harremanetan egoteko aukera emoten deuslako.

Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea pandemian sektoreak murrizketetara egokitzen jakin dauela, eta ohiko bezeroengana iristea lortu dauela, baita etxez etxeko salmentaren bidez barriak eskuratzea be. Herritarrei eskatuko nengiezan pandemian zehar geure ekoizleek etxera eramaten ebezan tokiko produktuak erosten jarrai daiezala.

Apurka-apurka, gauzak normalizatu egingo dira, baina egia da, era berean, krisi honek balio izan behar ebala geure ekoizleak azoka hoiende egon ez daitezene bere produktuak saltzeko soilik, baizik eta bezeroentzat eskuragarri egon daitezene beste bide batzuetatik, hala nola etxez etxeko salmentatik, edota saltoki txikietatik.

### **Ze itzulera dauke azoka hauek ekoizleentzat?**

Lehenik eta behin, merkatuek eta azokek geure baserriarren produktuak merkaturatzeko bitarteko izan behar dabe, hau da, alderdi ekonomikoa da garrantzitsua. Horretaz gain, gure kultura eta ohiturak sustatzen badoguz eta turismoa erakartzeko balio badaike, geure produktuen kalidadeagatik eta sortzen dan giroagatik, askoz hobeto.

Zuzeneko salmenta da ekoizleei etekin gehien emoten deus merkatutze-modua, produktuen iraunkortasuna eta trazabilitatea bermatzeaz gain, hornidura-katea laburragoa dalako eta jatorria hurbilagoa dalako. Hori dala eta, erakundeak beste eragile batzuek batera lanean ari dira merkatuen eta azoken jarraipena bermatzeko, gaur egun doguzen arazoak konpontzen lagunduz, hala nola belaunaldi-erreleborik eza, bezeroen zahartzea, araudiak eta ekipamenduak egokitzea. Merkatu eta azokak erosketa-esperientzia egokia eskeintzen daben gune bihurtu behar doguz, eta elikadura seguru, osasungarri, iraunkor eta lokalaren alde egiten daben ekoizle eta kontsumitzaile barriak erakarri behar doguz.

>>>

## **Gernikako plazan eta Bermeoko portuan belaunaldien arteko erreleborik eza sumatzen da. Zelan egiten jako aurre errealtate honi?**

Izan be, geure sektorearen zahartzea eta belaunaldi-erreleborik eza gainditu bako gaia dira oraindik. Geure gobernuarentzat, alderdi hau funtsezkoa da, eta uste dogu lanean hasi gura daben gazte barriei laguntza handiagoa emoten jarraitu behar dogula.

## **Laguntza-planak dira irtenbidea ala epe luzeagorako beste tresna batzuek lan egiten dozue?**

Dagozen laguntza-planak (lehen aldiz sartzeko laguntza, inbertsiorako laguntza, zuzeneko laguntzak, etab.) beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak. Instalazio-prozesuan jarduerari ekin gura deutson pertsonari laguntzea funtsezkoa dala uste dogu.

Gaur egun, Euskadin, laguntzako programa bat daukugu (Gaztenek programa), prestakuntzaren eta aholkularitzaren inguruan egituratzen dana. Programa honek ospe handia izan dau, baina gaur egun barrikusten ari dira, Europako Erkidegoko eskakizun barrietara egokitzeko, neurri handi batean ingurumenari dagokionez, transferentzia teknologikoa eta digitalizazioa sustatuz.

Era berean, ekoizpen ekologikoa eta tokiko produktua, sektore-egituraketa, eraldaketa eta abar sustatzen jarraitzen dogu.

## **Enpresek I+G+b behar dabe etorkizunera begiratzeko. Ze barrikuntza mota aplikatzen ari da geure lehen sektorean?**

Elikagaien arloa sektore tradizionala da, baina, aldi berean, I+Gn eta barrikuntzan egindako apustuagatik nabarmentzen da,

eta kontsumitzaileen behar aldakorretara etengabe egokitzen ari da. Ildo horretan, elikadura jasangarri, osasungarri eta pertsonalizaturako joera dago, eta, bestalde, elikagaiak ekoizteko sistema barriak garatzen ari dira, kanpoko sargaiekiko mendekotasuna murrizteko, emisioak murrizteko eta klima-aldaketara egokitzeko.

Segurtasuna eta kalitatea dira kontuan hartzen ari diran beste aldagai batzuk, eta, hauen ondorioz, 4.0 teknologia barriak sartu dira, adibidez, elikagaien kontserbazioan.

Lehen sektorean, barrikuntza produktu-mailan (labore eta barietate barriak sartzea, tokiko barietateak berreskuratzea, funtzionalitate eta erabilera barriak bilatzea), negozio-mailan (kanal eta merkatu barriak bilatzea, online salmentaren gorakada aipatu), prozesu-mailan (ekoizpen

## *Instalazio-prozesuan jarduerari ekin gura deutson pertsonari laguntzea funtsezkoa da.*

ekologikoa bultzatzea, teknologia barriak sartzea, sargaien kontsumoa murriztea edo nekazaritza ez-konbentzionala – bertikala edo zirkuitu-itxiak – edota antolakuntza mailan (sektore-egituraketa, eta abar) egiten da.

Digitalizazioaren esparruan, honako hauek nabarmenduko neukez: trazabilitatean egindako aurrerapenak (landa-koadernoa automatizatzea, gardentasuna eta jato-

rrizko ziurtapena, ...), ingurumen-inpaktuaren eremuan eta osasun-bermean egindako aurrerapenak (abere-kargen kudeaketa, antibiotikoen murrizketa, ...), produktuaren kalitatean egindako aurrerapenak (hondakin eta mikotoxina gutxiago, kalidadea hobetzea, uztak batzeko unerik onena, ...), eta baita geure baserriarren bizi-kalidadea hobetzen daben bestelako aurrerapenak be (ganaduaren lokalizazioa, agiak eta erditzeak detektatzea, aska automatikoak, ...).

Azken hilabeteetan, koronabirusaren krisiaren ondoren, merkaturatzean eta produktu desbardinaren arteko eta elikatze-katearen maila desbardinaren arteko lan-kidetza-prozesuetan barritzeko premia handia dago.

## **Esan al daikegu lehen sektorea jasangarria dala ingurumenaren aldetik eta jarduera ekonomiko lez?**

Geure lehen sektoreak biodibertsitatearen, paisaiaren eta CO hartzen daben ta, beraz, berotze globala murrizten daben ekosistemako elementuak mantentzearen sortzaile lez daukon zeregina zalantza bakoa da, are gehiago euskal nekazaritzaren ekoizpen-eredua kontuan hartuta, lurraldeari lotutako ustiategi estentsiboekaz, ingurumen-balantze orekatuagaz, argi eta garbi positiboa.

Edozelan be, ingurumen-jasangarritasunerantz aurrera egiten jarraitu behar dogula uste dogu, baina jasangarritasun hau ezinezkoa izango da geure ustiategi iraunkortasun ekonomikoa barik.

Azpirarratu gura neuke be, asmo handiko helburuak ezarri behar diran arren, inplementazio-epe errealistak eta aurrekontu indartuak izan behar doguzela planteatzen diran helburuak lortu ahal izateko.



## **Ze bilakaera izan dau nekazaritza ekologikoak Euskadin azken urteotan?**

Sailak ekoizpen ekologikoa sustatzeko plan bat babesten dau 2015etik, FOPE plana izenekoa. Azkena ekintza zehatzekin idatzi zan 20-23 hirutekoan garatzeko. FOPE 2020-23 planaren helburua ekoizpen ekologikoa sustatzea da, balio-kate osoan eragina daben ekintzen bidez: ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea eta kontsumoa. Horretarako, lehentasuna emongo jake NEn hazteko ahalmen handiena duten ekoizpen-orientazioei (labore estentsiboak eta fruta-laboreak) eta NE jasangarriagoa izateko orientazioa behar dabenei (ortuariak).

Produktu ekologikoal lantzen dabenen urteko hazkunde-tasa egonkortu egin da azken urteotan. Azken datuen arabera, 2020an urteko % 5eko hazkundea izan da. (Ekolurrako datuak). Halada be, nekazaritza ekologikoaren azalera erabilgarriaren urteko hazkunde-tasa hirukoiztu egin da 2015ean FOPE proiektua hasi zanetik. Gaur egun, 2019ko eta 2020ko datuek azalera (Eko-lurra), tasa hau urteko %26 eta %20koa da, hurrenez hurren. Nekazaritza-azalera erabilgarria (ENA -Nekazaritza-aprobetxamenduko erabilitako nekazaritza-azalera, larre iraunkorrak barne) hirukoiztu egin da, %1,4tik %4,3ra igaro baita gaur egun; une honetan, erabilera ekologikorako nekazaritza-azalera erabilgarria 6.789 ha-koa da. (Ekolurra)

## **Urdaibaik ba al dauko potentzialik Euskadiko nekazaritza ekologikoaren buru izateko?**

Nekazaritzaren ikuspegitik, Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren ekoizpen-ahalmena txikia da, kontuan hartzen badogu zenbat ustiategi profesional dagoen. Hata guzti be, inguruko kontsumitzaileen eskarira eta ikuspegi ekologikoagaz ondo bideratutako ekoizpena aukera ona izan

leiteke; ispilu ona izan leiteke antzeko beste eremu batzuk orientatzeko, ingurumen-baldintza zorrotzekaz, non nekazaritzak bere aberastasunaren parte izan beharko dauen, baina gaur egun tokiko eskaria daukeen eta izurriteen maneju eta laboreen txandaketa zailtzen/baldintzatzen dauen klimara egokitutako laboreetara bideratuta.

## **Arrantza-tokien iraunkortasunerako legegia geure arrantza-sektorearen biziraupenaren bermea be al da?**

Euskal arrantza-sektoreak ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra dan sektorea bada soilik bermatuko dau bere biziraupena. Iraunkortasun ekonomiko eta soziala bermatuko dauen beharrezko oinarria eta premisa da.

## **Europa mailan, ze eginkizun dauko Euskadik 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoan (NPB)?**

Zoritxarrez, gure pisua lausotu egin da, Estatuaren Plan Estrategikoan sartuta gagozelako. Izan be, erreforma horretan, nabarmentzekoa da Estatu Kideek subsidiariorat jotzen dabela onuradun potentzialak edo lagundu beharreko sektoreak definitzea, baina ez dala hedatu autonomiadun herriadeetara, eta, horrela, eragotzi egiten dala Plan Estrategiko propioa egitea; izan be, azkenean, onartutako erregelamenduak Estatu Kide bakoitzeko Plan Estrategiko bat baino ez dau jasotzen.

Halanda be, lan handia egin da plan estrategikoaren diseinuan parte hartu dabenei goi-mailako taldeetan (Ministerioa-AE Autonomia-erkidegoak), geure sektorearen interesak defendatzen saiatuz, bai Euskadi mailan, bai Kantauri itsasertzeko autonomia-erkidegoekaz batera. **UM**



**LGK** TRANSPORTE,  
LOGÍSTICA ALMACENAJE,  
DISTRIBUCIÓN...

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika - Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es

**Arrien Optika**

Urkieta k. 10  
Tel./Fax: 946 25 63 63  
Email: arrienoptika@yahoo.es



Foruko paduretatik ibilbidea.

# FORU

historiaz betetako paisaia

Barnealdearen eta kostaldearen arteko bidearen zaindaria, Foru Urdaibairen nortasunaren bildumen aparta da: natura aberatsa, paisaia paregabeak ondo kontserbatutako ingurune batean eta gizateriaren historiako garai eta zibilizazioen ondarea batzen dauen kultura-ondarea.

**F**orun tartekatzen diran paisaien mota askotako mosaikoa Baldatika auzoaren altueratik haranaren barneraino hedatzen da, eta Gernikako itsasadarragaz bat egiten daben paduretan bihurtzen diran basoz eta landazabaleko magal zabalez osatutako mantu aldakor bat sortzen dau.

Paisaia eta kultura, bananduezineko tandemak osatzen dabe Forun. Hemen, txoko bakoitzak bere historia dauko, eta historia bakoitzak bere paisaia, mendeetan zehar egiteko moduek aldatua, zibilizazioen eta garaien arteko kultura-elkarreraginen kate luze batean ikasiak, indartuak eta errespetatuak. San Kristobal ermita praktika



hauen erakusle bikaina da. XVI. mendean eraikia, bere hormetan burdin aroko eta, beharbada, erromatarren garaiko piezaki integratzen dauz. Duela gutxi zaharberitutako ermita Urberuaga eta Arnotxerri auzoetako gune espiritual eta soziala izan da, eta eraikinaren itxurak, bere garrantzi historikoak eta bertako ingurune natural idilikoak bisita merezi dabe.

San Kristobal ermitatik oso gertu, Urberuagako bidearen gainean, Urdaibaiko dorretxearen silueta dago hostotzaren artean, denboraren zauriekaz markatuta eta irmotasunez eutsi egiten dauena, bere garaian lurraldearen gainean egin eban kontrol sutua gogoratzu.

Foruko kultura-errepertorio bikainaren artean, erromatar herrixka nabarmentzen da, ezaugarri hoiak daukozan Kantauri itsasoko bakarra. Antxinako asentamendu honen jatorria I.mendekoa da, industria- eta portu-izaerakoa izan zan, eta bere indusketa eta ondorengo ikerketa erabakigarria izan da Erroma Bizkaian



San Kristobal basiliza.



Foruko erromatar herrixkaren aztarnategi arkeologikoa.

egon zala ulertzeko. Handik oso gutxira, eta Tourseko San Martin elizan, 2006 eta 2010 urteen artean egindako indusketek agerian jarri dabez I. eta II. mendeetako foroaren zati baten hormak, gaur egun tenpluko kristalezko behegainaren azpian ikus daitekezenak. Aurkikuntza hauek, Elexaldeko mendi-hegalaren multzo historiko-kulturala osatzen da. San Martinek, gainera, Bizkaiko sekuentzia historikorik zabalena gordetzen dau.

San Frantziskoko komentua estilo neoklasikoan, udaletxearen eraikinagaz batera, herriko erdigunearen fisonomia berezia sortzen dau. Eraikina 1719an Forun Izaro irlako frantziskotar mitikoen lehorreratzearen lekuko da.

Elexalde auzotik, eta landa-bidea jarraituaz, Gaitoka auzotik Triñeraino, ibilbideak sigi-saga egiten dau landa lasaien zehar, Busturialdeko harrizko mahats-parren artean. Landa hauek San Gregorio ermitara iristean paduretara zabaltzen dira, Urdaibaiko ikuspegiarik ederrenetako bat sortuz.

Urberuagatik Baldatikara doan bidea da beste ibilaldi interesgarri bat, zorrotzagoa bada be. Malda horretatik landazabala utzi eta pinudi eta artadi kantauriarretik ibiliko gara. Bidean, landa-bide estuaren alde batean, hilarri bitxi baten erreproduzioa ikus daikegu, "Ama Birgiña" edo Baldatika hilarria, Erdi Aroan berrerabilitako erromatarren aurreko hilarria.

Baldatika, baserri auzo lasaia, Foru eta Gernikaren gaineko begiratoki handi bat da. Bere eraikinen artean, San Bernardo ermita bitxia nabarmentzen da, oraintxu barriztua.

Foru bisitatzea sinfonia kultural batean barneratzea da, mila ñabardura eta erregistroekaz, agertoki natural aparteko eta orogarrietan. **UM**

# LANDA ESKOLAK

etorkizuna lantzeko

Busturialdeak antzinako landa-eskola asko gordetzen dauz, gaur egun beste erabilerara batzuetarako egokituak. Gehienak XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen erdialdera arte eraiki ziran. Auzo-eskolak baserri bakartuetan bizi ziran umeez irakurtzen eta idazten ikasteko aukera izan ziran.

**B**ere estilo arkitektonikoa ezaguna da, gainera, gehienek Eskola Publikoko edo Nesken Eskolako eta Mutilen Eskolako inskripzioak mantentzen dabez, eskola horrek geure herri eta auzoetan izan eben garrantziaren erakusgarri. Ajangizko mutilen eskola, 1851koa, gaur egun txokoa, eskualdeko zaharrenetakoa da. Ajangizko neskek 1864. urtera arte itxaron behar izan eben eskola-hezkuntza hasteko. Gernika-Lumok XIX. mendean lau eskola eukazan, bi mutilentzat, Santa Klara landan eta Santa Maria kalean, eta bi neskentzat, bata Santa Maria kalean be eta bestea 8 de enero kalean. Angel Allende Salazar gernikarrak, Gorteetako diputatuak, gobernuak Pasealekuko eskola barrien %50 finantzatzea lortu eban.

Eskola horreetara 1885ean mutilak joan ziran eta 1927an neskek.

Nabarmentzekoa da Busturia, XIX. mendearen azken hamarkadan hiru eskola eukazan eta, hein handi batean Arroategi anaiak bizilagun dirudunei esker. 1886an Manuel Maria Arroategik Axpe auzoan eskola bat eraikitzea erabaki eban eta ondoren herriari emon eutsen. Nikolas Arroategi bere anaiak be gauza bera egin eban 1892an, eta neskatuen eskola eraiki eban. Hirugarren eskola 1899an eraiki zan Altamiran. *"Oraingo honetan, Altamira auzoari umeen eskolarako zerbitzua emon behar jako; izan be, Axpe auzotik urrun egoteak zaildu egiten dau ikasleak elkartzea, are gehiago laborari-klasea.."*. Horrela, Udalak baimena eskatu eutsen probintziako Aldundiari eskola eraikitzeko, gaur egun oraindik be jatorrizko irakaskuntza-zentro lez erabiltzen jarraitzen da.

Ibarrangeluko erdigunean, frontoiaren ondoan, eskola zaharren eraikina nabarmentzen da, 1905ekoa. Baina, lehen be, herriak baeukan beste zentro bat, eta ha ordezkatu zan txiki geratu zalako. Antzora be baeukan bere auzo-eskola. Bermeon, Frantziskotarren komentuan Lehen



Irakaskuntzako Eskola sortu zan 1919an, eta 1974ra arte jardun eban. Gaur egun herriko Musika Kontserbatorioa dana Irakaskuntza ikastetxea izan zan. Mundakan, 1907tik Arrantzaleen Kofradiaren lokaletan egoan eskola, harik eta 1923an Juan de Tribisarrospe Zentroa sortu zan arte, bere emoi le nagusiaren izena. Gaur egun Kultur Etxea da. Arratzun, 1925ean eskola publikoa udaletxearen ondoan eraiki ebana be ongile bat izan zan.

## LANDA-IRAKASKUNTZARI BULTZADA

XX. mendearen hasieran argi geratu zan Bizkaian hezkuntza-desoreka larria egoala. Landa-eremuko eta urrunago egoezan guneak irakaskuntzatik kanpo geratzen ari ziran. Analfabetismoa oso handia zan, 10 bizkaitarretik 3k ez ekien ez irakurtzen ez idazten. Egoera horren aurrean, 1917an, Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolak sortzeko proiektua hasi eban.

20 urte baino gutxiagoan, 120 eskola baino gehiago sortu ziran Bizkaia osoan. Hoi ei esker, landa-eremuko biztanleak gizarteratu eta alfabetatu ahal izan ziran, umeei euren ama-hizkuntzan, euskaraz, irakatsi jakezan, eta eskolak gizarte eta



*Landa-eremuko biztanleak gizarteratu eta alfabetatu ahal izan ziran eta umeei euren ama-hizkuntzan, euskaraz, irakatsi jakezan.*

Omako landa eskola (1932), Kortezubi

kultur harremanen gune gisa zeukien garrantzia sustau zan. Udalerriren eta auzoen parte-hartzea funtsezkoa izan zan. Baldintza bat eskolarako lokal egoki bat eskaintzea zan. Kasu batzuetan auzotarrek eurek eraiki eben eskola. Paisaiari egokitutako eraikinak ziran, harlangaitzezkoak, eta euskal eskualde-arkitekturaren arauari jarraitzen eutsozan.

Geure eskualdean, landa-irakaskuntza sustatzeko proiektuak eskola ugari eraikitzea ekarri eban. Mendatan, **Albiz** auzoan (1921); Arratzun **Belendizko** eskola (1921); Errigoitin **Metxika** auzoan (1921) eta **Errigoitiolean** (1921); Ean **Natxituko** (1921); Muxikan **Aiuriako** eskolak (1923), **Ariatza** (1921), **Maume** (1933), **Astelarra** (1922) eta **Zugaztieta** eta **Oka** (1928); Bermeon **Zubiaurkoa** (1921) eta **Aranekoa** (1927); Forun **Baldatikakoa** (1922); Ereñon **Gabikakoa** (1922); Gernika-Lumo **Lumo** auzokoa (1924); Morgan **Andra Marikoa** (1926); Ibarrangelun **Antzorakoa** (1927) eta **Akordakoa** (1926); Gautegez Arteagan **Basetxetakoa** (1927); Ajangizen **Kanpantxuko** (1931); Busturiann **Larrazabalekoa** (1932) eta **Paresikoa** (1933); eta Kortezubin **Omako** eskola (1932). Guztiak mistoak

izan ziran eta irakasle bat edo bi eukazan, gehienak emakume gazteak eta euskaldunak.

Hasiera batean, ikastolak edo euskal eskolak ziran. Euskararen erabilera aldatu egiten zan eremu geografikoaren arabera. Bi kategoria egozen, « A », maila honetan Busturialdeko eskolak egozen, euskarari emoten jakon lehentasuna eta gaztelania derrigorrezko ikasgaia zan; eta B, gaztelaniazko irakaskuntza zan eta euskara borondatezko ikasgaia zan. Halanda be, denborak aurrera egin ahala eta botere politikoaren arabera, lehentasunak aldatu ziran. Euskara indarra galtzen joan zan, II. Errepublikagaz eskola laikoa bihurtu zan eta gerra zibilaren ondoren, 1938tik auzo-eskolak Auzo-Eskola Nazionalak izatera pasa ziran eta ikasleak sexuaren arabera banatu ebezan, *"moral katolikoaren aginduei jarraituaz"*, besteak beste.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskolen kudeaketa berreskuratzeko lanean jarraitu eban, 1948an Eskola Babeserako Kontseiluagaz lortu zana. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera eskolak ixten joan ziran. Gaur egun, eraikin hoietako askok, beste jar-

duera eta zerbitzu batzuetara bideratuak, inskripzioak gordetzen dabez, herri kontziaren lekukotza, urte zail hareetan hezkuntzari lehentasuna emoten jakolako etorkizun bat lantzeko. **UM**


*Bibliografia: "Educación y Escudos de Barriada de Bizkaia." Gregorio Arrien.*

## 1933-1934 IKASTURTEA

- Akorda, 40 ikasle
- Aiuria, 47 ikasle
- Albiz, 48 ikasle
- Andra Mari, 86 ikasle
- Astelarra, 95 ikasle
- Baldatika, 30 ikasle
- Basetxeta, 48 ikasle
- Kanpantxu, 64 aikasle
- Lumo, 35 ikasle
- Metxika, 85 ikasle
- Errigoitiolea, 76 ikasle
- Oma, 17 ikasle

# Arana Kondearen


## ONDARE A GERNIKA-LUMO



1. Arriaga



2. Soledadene



3. Torrezi.

Argazkiak 1,2,3 eta dokumentazioa: Gernikazarra

"1920ko hamarkada zoriontsuaren" inguruan, Gernika-Lumok be garai bikaina bizi izan eban. Ora-indino bizirik dirauten Arana kondearen familiaren jau-regi-etxeak eta txalet bikainak garai hartako eta haren biografiako hiri-testigantza dira.

**A**rana kondearen bizitza gidoi zinematografiko bat egiteko bestekoa da. Jau-retxeek, txaletek eta jau-regi-etxeek, zaldiek tiratutako gurdiek, Rolls Roycek eta goi-mailako harreman politikoek definitzen dabe beren bizimodua, Gernika-Lumo protagonista dala.

Teodoro de Arana y Belaustegi, Arana kondea bezala ezagunagoa, Gernika-Lumon jaio zan 1858an. Bere aita Jose Ignacio de Arana Torrezi gernikarra izan zan, Bizkaiko Korrejimenduen teniente jenerala, Karlos VII.a Borboikoa erregeagaz. Ama Lumokoa zan, Maria Dolores Belaustegi de Arriaga. Cruz Larrinaga y Luzarragaz ezkondu zan. Ondo baloratutako eta diruduna zan ontzi-jabeen familia ezagunako neskato mundakarra zan. Bost seme-alaba izan ebezan: Ramón Ignacio, Soledad, Teodoro, Margarita eta Ricardo.

Bere ibilbide profesionalak goi mailetara eraman eban abokatu eta politikari ospetsu lez. Karlista konbentzitua eta konprometitua izan zan, eta diputatua ta Gipuzkoako senatari izatera iritsi zan 1905-





Arana kondeak San Juan Ibarra inguruan bere bizitegi-inperioa eraiki eban, gaur egun oraindik zati baten mantentzen da.

Arriaga, Torrezuri eta Soledadene eraikinak (ezkerretik eskumara) gaur egun.

1907, 1916, 1917 eta 1918 artean. Eusko-lkaskuntzako kide eta Bizkaiko Jaimismoaren (Karlismoa Jaime Borboikoaren dinastian) buru izan zan 1922tik. Garaiko politika ulertzeko interes handiko liburuak idatzi ebezan, «*Fraternidad vasco-histórica*» eta «*Vademecum del Vasco*» 1921 eta 1922an argitaratuak.

Teodoro Arana y Belaustegi ez zan kondea izan sehaskatik. Bere ospe politikoak eta Elizagaz izandako harreman onak titulua izatera eraman eben. Aulki Santuak noblezia-titulu pontifiziokoak emoten ebezan eta hau izan zan Arana Kondearen kasua. Pio X.a Aita Santuak konde titulua emon eutson 1908an: "...Zuk, ez gutxiago zure kargu publikoaren duintasunak go-raipatua, ondasun aberats eta ugariagatik eta kristau bertute guztien estimagarritasunagatik...", Aita Santuaren maitasunaren frogara lez eta zeure merezimenduen sari egoki lez ohorezko titulu bat merezi dozula deritzogu, zeinaren distirak zure ondorengotzari be irradiatuko baitio...". Oinordetzako titulua, beti be seme zaharrenari dagokiona, eta garai hartako 12.000 pezeta ordaindu behar izan ebezana titulu hoiengaineko zergagatik.

#### ARANATARREN BOTEREA

Arana kondeak bere estatusaren pareko ondarea utzi eban Gernika-Lumon. San Juan Ibarra inguruan, XIX. mendearen

amaieran padurari irabazitako lurretan, Arana kondearen bizitegi-inperioa eraiki zan. Lehenengo, *Nere Kabia* familiaren etxebizitza eraiki eban XX. mendearen hasieran, bere seme zaharrenak oinordetzan hartu beharko leukeena, eta, ondoren, lau jauretze-etxeak eraiki ebezan bere beste lau seme-alabentzat.

Gaur egun, hoietako hiru kontserbatzen dira. Kale partikular batetik sartzen zan *Aranaegi* urbanizazioa bezala ezagutu zan bizitegi-gunera, sarreran harrizko arku bat ebana, gaur egun Ertzaintzaren komisariaren sarrera lez birkokatua. *Nere Kabia*, San Juan Ibarra pasealekuaren atzealdean; *Torrezuri*, Teodoro de Arana y Larrinaga semearentzat; *Arriaga*, Torre Zuriren aurrean, Ricardo semearentzat; *Soledadene*, bere alaba Soledaderentzat; eta *Eguzki Etxea*, 1960ko hamarkadan Gernika Jai Alai frontoiko aparkalekuak eraikitzekeo eraitsia, Margarita alabarentzat. *Nere Kabia* izan ezik, bertan Kondea bizi zalako, beste etxeak udak igarotzeko erabiltzen ziran.

Gaur egun, familiako txaletak ez dira Aranatarren leinukoak. *Nere Kabia*, babesleku antiaereo izandakoa, suntsituta geratu zan Gernikako bonbardaketan. *Soledadene* 80ko hamarkadaren hasieran Eusko Jaurlaritzari saldu zan, eta 1985ean Ertzaintzaren komisaria inauguratu zan

bertan. *Arriaga*, etxebizitzetarako birgaitua, 90eko hamarkadaren hasieran saldu zan, eta 1992an *Torrezuri* saldu zan, gaur egun adinekoen egoitza dana.

Aranatarrek beste etxe-jauregi bat utzi eben, Víctor Aranarena, Kondearen anaia-rena, eta Dionisio Aranak "Katarrok" erosi eban, abizen berekoa, baina inolako senidetatsun bakoa. Berak "Katarro Jatetxe" entzutetsua bihurtu eban eraikina, 1979an itxi ebana. Gaur egun be eraikina Dionisio Aranaren familiakoa da.

Arana kondearen ospea Gernika-Lumoko bizitza soziokulturean be nabarmendu zan. Berak eraiki eban Lizeo Zinema eta Antzokia 1922an, garai hartako kultur gunerik garrantzitsuena, eta domekero proiektioaren buru izaten zan, lehenik musikariek lagundutako zinema mutukoa eta ondoren zinema soinudunagaz. 40ko hamarkadan saldu eban zinema.

Arana kondea 1945ean hil zanean, Aranatarren dinastia ez zan hil beragaz. Haren seme-zaharrak Ramon Ignacio Arana Larrinagak Konde titulua jaso eban oinordetzan, eta, ondoren, haren semeak (Kondearen loba), duela gutxi Gautegez Arteagan hil zanak. Gaur egun, badirudi kondetza garai modernoan erritmoan desagertu dala, nahiz eta bere herentziak eta oroi-menak Gernika-Lumoko kaleetan iraun.

# Ikoak,

udazken aurreko energia  
gozoa

Gozoak, delikatuak eta energia hutsa. Ikoa uda ostean "espero" dan fruta da, eta Euskadin base-riagaz lotzen da bereziki; eguzkiaren beroak ortuko egun gogorretan gogor jotzen dauenean eskertzen da bere gerizpea, eta bere fruitu gozo, delikatu eta iragankorrak zapore- eta nutriente-leherketa bategaz egiten deutso ongietorria udazkenari, osasunerako gozagarri bezain onuragarri.

## Ba al zenekien?

- Ikondoaren hostoa hagnetako mina sendatzeko erabiltzen zan.
- Iraila da unerik onena ikoak kontsumitzeko, eta hortik dator esaera hau: *"Para el veranillo de San Miguel, están los higos como la miel"*.
- Ikoa historiaren parte da, Idazteu-netan, Egiptoko piramideen irudietan edo antzinako Grezian agertzen dira.
- Ikondoak zuku esnetsua dauko, moztu bezain laster jariatzen dan latexa, gatzatua egiteko erabiltzen dana, esnea gatzatzeko bertutea dauelako, eta herri-medikuntzan eskuetako garatxoak sendatzeko erabiltzen zan.

**U**da amaieran ikondo batera igo eta fruitua zuzenean jatea da geurre haurtzaroko memoriari eta memoria gastronomikoari atxikita dirauten oroitzapenetako bat. Baina, zenbat dakigu ikoei buruz?

Ikoa fruta bat dala pentsatzea dan arren, kontua da fruta asko dirala batean. Izan be, *infruteszentzia* edo fruitu multzoa da. Madari formako errezeptakuluan bere loreak ezkututzen dira. Lore hauek mamian topatzen doguzan pipitak edo haziak gartzen dabez, ikoaren benetako fruitua direnak eta ahosabaian ukitu kizkorra emoten deutsoezenak.

Ikoek forma obalaua dauke, madari txiki-koak bezala, eta, normalean, berde, more edo baltz kolorekoak izaten dira, barietatearen arabera.

Iko barietate asko dagoz, 700 baino gehiago, basatien edo landuen eta jangarriak diran eta ez diranen artean. Ezagunenak hiru multzo handitan banatzen dira, zuriak, gorriak eta baltzak.

#### IKOETATIK IKO-LORATARA

Ikondo ohikoenak bi multzotan sailkatzen dira: urtean fruitu bat emoten dabenak eta urtebetean bi fruitu emoten dabezenak. Ikondo arruntek uzta bakarra emoten dabe, abuztutik irailera bitartean jasotzen doguna. Teknikoki, hauei *uniferoak* esaten jake. Bizkaian Latza barietatea nabarmentzen da, *Ficus carica unifera* piku arrunta, denboraldiko uzta bakarra emoten dauena, uda-udazkeneko ikoak. Barietate hau ezin hobeto egokitzen da geure klimara, hezetasunari oso ondo eusten deusolako. Bere ekoizpena oso oparoa da, oso iko zaporetsuak eta azal finekoak dira, eta erraz jaten dira azalagaz. Ikoa er-taina da eta bere mamia hori arrosa, gozoa eta zapore bikainekoa da. Deigarria da inguruan hegaz dabilen erle kopurua, berez gozoa dan ikoaren azalean pausatzen dira hauek, ostiolora edo fruituaren irekiera naturalera joan beharrean.

Urtean bi fruitu emoten dabezen ikondoak *biferoak* dira, iko-baltzak izenez be ezagutzen diranak. Hauek dira hain prezia-tuak diran iko-lorak eskaintzen dabezenak, udaberrian, eta udazkenaren atarian, ikoak emoten deuskuezanak. Hortik dator gaztelaniatzko *“de higos a brevas, larga las lleva”* esaera zaharra, zerbait noizean behinka gertatzen dala adierazteko erabiltzen dana. Iko-lorak iko berantiarrak dira, hotzagatik heldu ez direnak, udaberrian hibernatu eta heltzen diranak.

Iko-lorak estimatuak dira, ikoa baino handiagoa dalako, baina ez da hain gozo eta usaintzua. Madari forma dauko eta tonu desberdinetakoa izan daiteke barietatearen arabera: hori-berdexkak, urdinxkak edo baltzak.

Euskadin Tonel-Iko ikondo barietatea nabarmentzen da, *San Pedro Ficus carica bifera* motakoa, urtean bi uzta emoten dauz denboraldiko, iko-lorak udaberrian eta ikoak uda-udazkenean.

#### IKOAK, GOZOAK ETA OSASUNGARRIAK

Daukon azukre eta zuntz aberastasunagatik ezinbesteko bihurtu zan antzinako greziarren dietan. Izan be, olimpiar jokoe-tan parte hartzen eben atletek energia emoteko kontsumitzen ebezan, kaloria-rik irabazi barik. Nutrizio-balio eta energia-ekarpen handi hau bere indargunee-tako bat da, zapore gozoagaz batera. Ikoek energia, mineralak eta zuntza eskaintzen dabez. Halanda be, bere nutrizio-balioa freskoa edo sikua dan, aldatu egiten da. Ikoak freskoan 74 kaloria emoten dauz 100 gramoko edo 249 kaloria kopuru berean, baina sikuan kontsumitzen badira. Ur asko dauke eta karbohidratoetan (glukosa, fruktosa eta sakarosa), zuntzetan, azido organikoetan eta mineraletan (magnesioa edo kaltzioa) aberatsak dira, hezur- sendo eta osasuntsu mantentzeko ezinbestekoak. Emoten daben zuntz kopurua handia da, eta horregatik uste da ona dala pisua kontrolatzeko, asetzen eta libratzen dabelako. Ikoek omega 3 eta 6 kantidade handiak eskaintzen dabez, sistema kardio-baskularrerako onak.

Gastronomiari dagokionez, joko asko emoten dabe. Erosterakoan, irmoak izan behar dabe. Oso delikatuak dira, egun pare batean biguntzen dira edo orban marroiak agertzen jakez. Sukaldaritzan, ikoa erabilera anitzeko fruitua da, mermeladak, konfiturak edo almibarrak egiteko balio dau baita plater gaziak, entsaladak edo hestekiak laguntzeko. **UM**

## ERREZETA

# Ikoak Almibarretan

### OSAGIAK

- Kilo bat Iko
- 800 gramo azukre
- 2dl ur

Ikoak gogor samar egon behar dau, baina erabat osatuta eta heltzen hasita. Ikoak zulatu eta kazola batean egosten dira ura eta azukreagaz. Zaindu ikoa desegin ez daiten eta ez daiten gogorra geratu. Lehen egosketa honen ondoren, ikoek “jarabe” moduko bat botatzen dabe. Utzi barriro xurgatzen daben arte. Eragiketa hau hainbat aldiz errepikatzen da lau egunetan. Aldi horren eta azkenez jalgitzen utzi ondoren, ikoak potoetan jartzten dira, hutsean botilaratzeko. Ondoren, onena, gozoki artisau natural hau dastatzea.

On egin!



# Ura

## baliabidea, habitata eta kudeaketa

Ura kudeatzeko paradigma ekogarapena da. Hornidura-beharrizanak modu iraunkorren ase behar doguz, geure ur-baliabideen ingurumen-oreka kaltetu barik. Aldi berean, arazutako ura naturara itzultzeko erantzukizuna dogu. Ziklo hau iraunkorra izan daiten, inbertsio handiak egin behar dira azpiegituretan, mantentze-lanetan eta kudeaketan, legez erabiltzaileak osorik ordaindu behar dauen kalitatezko zerbitzua emoteko.

**B**usturialdeko sistema hidrikoa Oka ibaiaren arro hidrografikoan egituratzen da, 132 km<sup>2</sup> hartzen dauz eta Kantauri itsasoan itsasoratzen da. Mape, Sollube (Busturia) eta Golako (Oizen jaio eta Gernika-Lumora Arratzutik iristen da) ibaiak dira beste ibilgu nagusietako batzuk, eta lurpeko urak hiru unitate hidrogeologikotan banatzen dira: Oizko Unitatea, Bolkaniar Unitatea eta Ereñozar Unitatea. Hauen iturburuek emari-aldaketa handiak izaten dabez urtean zehar. Urdaibaiko Biosfera Erreserban, ur-hornidura akuifero hoiien kudeaketagaz eta ustiapenagaz oso lotuta dago, eta hartzuloak, leizeak edo artadi kantauriarreko dolinak zeharkatzen dabez. Zentsu hidrikoan 35 iturri, iturburu edo putzu baino gehiago ageri dira, agorraldian 2 l/s-tik gorako emaria daukeenak, 500 pertsonaren premiak asetzeko adina. Halanda be, egungo eta etorkizuneko ur-eskaerak urte-sasioaren eta gure herrietako hirigintza-plangintza-aren araberakoak dira. Epe labur/ertainean

hornidura-defizitaren egoera bat aurreikusten da, ur-masako geure espazio naturalen gaineko presioa eraginez, espezie autoktonoen habitatari zuzenean eragiten deitsona.

### GUZTIONTZAKO URAREN ETA SANEAMENDUAREN ERABILGARRITASUNA BERMATZEA, 6. HELBURUA

Mundu jasangarriago eta bidezkoago bat lortzeko konpromisoak bilatzen daben Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) 6. helburua, edateko ura eta saneamendua baino haratago doa. Higienea, ibai-arroen kudeaketa, bereziki, ur-baliabideen kudeaketa integratua, eta ingurumenaren gaineko kezak batzen dauz.

Euskadi, bere erakunde bitartez, helburu hauek lortzeko lanean ari da, eta azeleragailua zapaldu behar dogu, 2030 ez baita hain etorkizun urruna. GJHen ingurumen-esparruan, ur edangarriko sareen kudeaketa eraginkorra optimizatzen

ez  
gu  
tuz  
mendata



Orain eta beti



Uarka (Arratzu).

konpromisoak sartzen dira, eraginkorrak ez diran sistemaren galerak murriztuz eta egungo hornidura-sareak eraldatuz, ur edangarriaren erabileran kontrol eta segurtasun handiagoak emoten dabezen sare adimendunak bihurtzeko; uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala hobetzea, uraren zuzentarau europarragaz bat datorren tarifa-sistema homogeneo baten bidez. Zuzentarau honek ezartzen dau erabiltzaileak zerbitzuaren kostua ordaindu behar dauela, hau da, tarifak ura hartzeko, banatzeko eta ustiatzeko kostuek azkartzea ahalbidetzen dau, bai eta saneamendu- eta arazketa-kostuek bez; eta/edo hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak eta -instalazioak hobetzea. 2030erako saneamendu-sistema osoaren %100ak osatuta egon beharko du, eta tratatu bako isuriak ia zerora murriztuta.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbak, bere ingurumen-balioengatik, babes-figura asko eta askotarikoak daukoz. Eredu honetan eremu babestuak daukoguz, hala nola "Urdaibaiko Ibai Sareko KBEa, Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KBEa, Urdaibaiko Itsasadarreko HBEEa eta baita itsasadar hori "Ramsar hezetasunen zerrendan egotea be", zehazten dau URAK, Uraren Euskal Agentziak.

URAK, Euskadiko ur-masen egoera ekologiko ona ahalbidetzeko daukon erantzukizunean, orokorrean geure eskualdeko egoera kezkarri bat deskribatzen dau,

>>>

*"Ramsar Nazioarteko garrantzia daukon hezegunea, Ramsar Konbentzioaren edo Hezeguneei buruzko Konbentzioaren menpe. 1971n UNESCOr ezarritako gobernuen arteko ingurumen-ituna, 1975ean indarrean jarri zana.*



G.J.H.ko 6.helburua.

*Hornidura-defizitaren egoera bat aurreikusten da, ur-masako geure espazio naturalen gaineko presioa eraginez.*

**Ezagutu Gautegiz Arteaga**  
*pausoz pauso*





Saneamendu lanak.

## UR-BALIABIDEEN KUDEAKETA ARDURATSUA

Urdaibaiko Homiduraren Lurralde Ekintzako Planak (LEP) adierazten dau gure eskualdea defizitarioa dala baliabide hidrikoetan, batez be udan, ur-emaria gutxitzen danean eta biztanleria handitzen danean. Errealitate honek garapen-arazo larriak eta erronka barriak sortzen dauz uraren kudeaketan, eta ezinbestekoa da ingurumen-inpaktuari buruzko araudia betetzea.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban urrik ez dagoela ohartarazten dau URAk ingurumen-arazo gisa eta geure herrien garapenerako oztopo gisa, "defizit-arazo larria dago baliabide hidrikoen eskuragarritasunari, ur-eskaeren asetzeari eta lurrazaleko uren bilketa nagusiak dagozen puntuetako emari ekologikoehiko errespetuari dagokienez. Baliabide-defizit honek eta horren ondorioak eragin negatiboa dauke Busturialdeko hainbat udalerritako hirigin-

tza-garapenean, hala nola Busturia, Forua, Muxika, Ibarangelu, Kortezubi, Gautegiz Arteaga edo Sukarrieta. Ezin da aurrera egin edateko ura hornitzeko bermerik ez daukeen hiri-garapen barrietan", argitu dabe.

Saneamenduari dagokionez, eskualdeak atzean utzi dau estuarioko hondartzetan sufritzen ari zan kontzentrazio bakteriologikoa. 2021eko uztailaren 1ean Gernika-Busturiako saneamendu-kolektorea jarri zan martxan. Egun horretatik aurrera, itsasadarraren ezkeralderako herri guztiak, Gernikatik Bermeoraino, eta Arratzu, Kortezubi eta Gautegiz Arteagakoek, euren hondakin-urak Lamiarango HUAr bideratzen dabez.

Biosfera Erreserbako Saneamenduko Lurralde Ekintza Planaren (LEP) jarduketek abian jarritako saneamendu-azpiegitura barriak inflexio-puntu bat direla gure uren ingurumen-hobekuntzan gogorarazten

"Busturialdean, ingurumenaren aldetik gune babestuenetako bat izan arren eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren presio-ekiko sentikortasuna egon arren, eskualdeko egungo egoera, edateko uraren hornikuntzaren bermeari dagokionez, arazo larria da. Hondakin-uren saneamenduari dagokionez, Gernikako eta Muxikako aglomerazioa Hiriko Hondakin Uren Zuzentzarauaren ez-betetze nabarientetako bat izan da, eta zorionez, saneamendu-azpiegitura eginez gaintitzen ari gara, hauek 50 milioi euro inguruko kostua izango dabe".



1000 koloreau  
Taberna - Jatetxe

Plaza San Juan Ibarra, 5/4  
48300 Gernika-Lumo  
94 625 76 19 / 628 548 572



EMBASSY

Maximo Aguirre, 11  
48011 Bilbao

BESPOKE&URBAN

www.myembassybilbao.com

Urdaibaiko Biosfera  
Erreserban urik  
ez dagoela  
ohartarazten dau  
URAk inguru-  
men-arazo gisa eta  
geure herrien  
garapenerako  
oztopo gisa.

dabe URAkoek, baina "Muxika Gernika-Lumogaz lotzeko dago, Ajangizko ponpaketa barne, eta beste jarduketa txikiago batzuk, batez be itsasadarraren eskuinaldean. Kalkuluaren arabera, oraindik 14 milioi euro inbertitu beharko dira Saneamenduko LE-Pean aurreikusitako jarduerak osatzeko", azaltzen dabe URAtik.

Gure aurrean, ingurumenaren arloko erronkei eta eskakizunei eta horrek dakartzan gastuei (uraren kanon barria, esaterako) aurre egin beharra, "ingurumen-zerga barri bat izango dogu, uraren erabilerak ingurumenean sor daikkeen eragina murriztea helburu daukona. Aldaketa nagusia honetan datza: ur kontinentalen benetako bilketan jartzen da arreta, eta ez egiten ari zan kontsumo errearen edo potentzialaren estimazioan", Uraren Euskal Agentziatik azaldu dabenez.



Sukarrietako La marisma Parkea, honen azpian dago ponpaketa estazioa.

Urdaibaiko defizit hidrikoa, etorkizuneko erronka barriek, osasun-, ingurumen- eta hondakin-kudeaketako araudi barri eta zorrotzek, eta beste aparteko erronka batzuek, hala nola zibersegurtasunak edo kutsadura-kasuak prebenitzeko azpiegituri aplikatutako adimen artifizialak, geure eskualdea uraren zikloaren kudeaketa-eredua birplanteatzera eramán dabe, ahaleginak batuz eta Bilbao Bizkaia Partzuergoa bezalako erakunde indartsuago baten babesagaz. Helburua da pertsonen beharrian barri kaudimenez eta erantzukizunez erantzutea, natura agortu barrik. Aukeraturako bidea da gastuak partekatzea eta Bizkaia osoko hornidura- eta saneamendu-zerbitzuaren kalidadea partekatzea, inor atzean utzi barrik. **UM**

**E**  
EGUREN

OPTIKA

ENTZUMEN ZENTROA



GERNIKA-LUMO  
Domingo Bernaola, 1  
94 625 03 23 / 94 625 04 51

MUNGIA  
Aita Elorriaga, 20  
946156636



**AUZOKOA**

**TABERNA**

Ostadar  
zaporettsua

Pablo Picasso Kalea, 9  
Gernika-Lumo  
Tel. 94 625 16 66






**IZARO**

Izla

*greziar inspirazinoko kondaira*





Irla handi edo txikiek, bakarti edo biztanleekaz, beti gordetzen dabe misterio, sekretu eta jakin-min kutsua. Eta Izaro irla ez da salbuespena, guztiz kontrakoa. Urdaibaiko zeruertza edertzen dauen lur zati txiki honek hainbat istorio eta kondaira gordetzen dauz. Hoi guztien artetik, oraingoan fraile maiteminduaren kondaira berreskuratuko dogu.

**F**rai Martin Arteaga buru eben lau frantziskotarrek Izaro irlaren jabetza hartu eben, 1422an, aurretik Bermeok dohaintzan emondakoa, baina uribilduak jurisdikzio zibila eta judiziala beretzat gorde ebazan. Gaur egun, komentuen hondakinak eta ondorengo berreraikuntzen aztarnak ikus daitezke oraindik, VIII. mendean abandonatu zan eta. Honaino gertakari historiko eta errealez ari gara. Hemendik aurrera kontatuko doguna elezahar eta misterioen atalean sartzen da, maitemindutako bikote bat protagonista izanik eta maitasun hori eragozteko edozertarako prest egoan aita bategaz.

Kondaira honek ezinezko maitasun baten istorioa kontatzen dau, Mundakako maitale bikote batena. Neskaren aita ez egoan ados harremanagaz, eta ahal eban guztia egin eban ha hausteko. Mutikoa serio-siki mehatxatu eban, eta honek, tristuran murgilduta, bere patua itsasoan hiltzea zala erabaki eban. Orduan agertzen dira Izaron bizi ziran fraide frantziskotarrak, gaztea heriotza seguru batetik salbatu ebenak. Irlan, protagonista fraide ordenatu zan, eta hemen amodio ezinezko honen istorioa buka eitekean, baina ez zan hala izan... Neska maitemindua ez egoan prest galera onartzeko, eta bere maitearen bila irtetea erabaki eban. Tunika batez estalirik, Izaro irlara iritsi zan, eta fraideek, limosna zeraman norbaitegaz nahastuta, harrera egitera bidali eben mutila. Maitale maiteminduak barriro elkartu ziran! Gauero elkar ikusiko ebeela erabaki eben, eta horretarako, neska gazteak seinale lez kriseilu bat pizten eban Mundakako hondartzan, bere maiteak irlatik ikusten ebana. Orduan, bera itsasontziz hurbiltzen zan hondartzara, eta gauero elkartzen ziran han.

Horrela igaro zan zoriontsu amodiozko istorio hark, harik eta aitak sekretua aurkitu

eta barriro banatzea erabaki eban arte. Denborale gau batean, fraide maitemindua nahasteko asmotan, alabaren argia itsaslabarretako batean jarri eban aitak. Gazteak, konfiantzaz, argiari jarraitu eutsen, eta harkaitzetara eraman eban zuzenean. Uretara erori eta itota hil zan. Neska maitalea amaiera triste honen lekuko izan zan eta bere maitasunaren heriotzak eragindako mina jasan ezin izan eban. Bere maitalearen patu bera izatea erabaki eban neskak. Uretara bota eban bere burua, horrela betiko elkartuta egoteko.

#### HERO ETA LEANDROREN MITO GREZIARRA

Izaro irlaren maitasun kondaira honek amaiera tragikoa dauko, eta antzekotasun asko daukoz be Hero eta Leandroren mito greziarraz; horregatik, batzuek hausnartzen dabe greziar alegietan ezagutzak eukazan norbaitek istorioa egokitu ote leikean.

Hero gaztea, edertasunaren jainkosa Afroditaiko apaiz emakumea zan, hiriko dorreerik garaienean bizi zana. Hero ederrak Leandro ezagutu eban, itsasartearen beste aldean bizi zana, eta biak zeharo maitemindu ziran. Maitasun bizi ha zorigaitzera bideratua egoan, emakume apaiz batek bizitza jainkoari bakarrik eskaini behar eutsen eta. Gauero, Leandrok uger egiten zeharkatzen eban itsasartea beragaz egoteko, eta Hero hondartzara jaisten zan kriseilu bategaz ilunpetan gidatzeko. Neguko gau batean, ez ekaitzak, ez olatu indartsuek ez eben Leandrok bere maiteagaz elkartzeko eukan gogoia gelditu, baina itsasoaren amorruek gehiago iraun eban, eta Leandro itota hil zan. Hero atsekabeketa, Mundakako neska maiteminduak bezala, bere maiteagaz itsasora jauzi egitea erabaki eban. **UM**

casa de juntas  
**Gernika**  
batzarretxea



casa de juntas  
**Abellaneda**  
batzarretxea

casa de juntas  
**Gerediaga**  
batzarretxea



sede  
**Bilbao**  
egoitza

Hurtado de Amezaga, 6

[www.jjggbizkaia.eus](http://www.jjggbizkaia.eus)

## Bizkaiko Batzar Nagusiak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Juntas Generales de Bizkaia

## Edonora begiratuta ere energia-eraginkortasuna ikusiko dituzu

Energiaren Euskal Erakundeak ia lau hamarkada daramatzagu lanean, Euskadik **beharrezko duen energiarekin** bakarrik egin dezan aurrera. **Energia iturri berritzaileen, berriztagarrien eta onenen** aldeko apustua egiten dugu. Bitarteko tekniko eta giza baliabide onenekin. Ahalegin hori, denbora luzearen ondoren, **non-nahi ikus dezakezu.**

### Energiaz blai



## ARRATZU ELKARTEGIA


*Busturialdea-Urdaibain zure proiektua garatzeko eta zeure enpresa sendotzeko behar duzun espazioa. Abantailaz betea.*

Arratzuko erdigunean. Ekintzaileentzako edo enpresentzako gune partekatua.



*"Lan egiteko leku bikaina, instalazio moderno eta praktikoak dituena eta natura-ingurune pribilegiatu batean kokatua."*

**BIDEAN S.L.**



*Bisita gaitzazu!*

*"NEURE-ren iritziz Bizkaian azpimarragarriena infraestruturara da: cowork espazio hauek ekintzaileoen beharrian garrantzitsuenak lantzen dituzte (dabez). Espazio fisiko bat, Internet-a eta 24 ordu // 7 egunak astean lan egiteko aukerak premisa dira proiektuak aurrera joan daitezen. Horretaz gain, ekintzailetza ekosistema sustatzen da, zure kide beste enpresa berritzaileak (barritzaileak) baitira."*

**NEURE**



# EGUNEROKO GOSARIA FAMILIAN



IZAN ZAITEZ

# HARRERA

-FAMILIA ETA BIZITZA-HISTORIA BERRIA ERAIKI

## FAMILIA-HARRERA

LARRIALDIETAKOA - ALDI BATERAKOA - IRAUNKORRA - ESPEZIALIZATUA

**944 470 737**

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral